

Kirola

Uztaik Angelman Sindromea Elkartearen aldeko erakustaldia antolatu du zapatutako > 16



Ordezko pediatren faltan, hainbat herritan eten egin dute zerbitzua

Pediatría zerbitzurik barik egon ziren joan zen astean Zaldibar, Berriz, Atxondo, Elorrio eta Abadiño Zelaia auzoko anbulatorioetan. Durangaldeko lehen mailako osasun arretako arduradunek azaldu dutenez, zentro horietan lan egiten duten lau medikuetatik hiru falta izan ziren joan zen astean, eta ordezko bakarra etorri zen. > 3

“Oso baikorra naiz tokiko ekimenekin; kontsumoa da ekintza politikorik zuzenena”



Leire Milikua | Arkitektoa > 10



2016ko Bizkaiko Bertsolari txapelketako finala jokatu da bihar, Bilbon, eta bertan arituko dira kantuan Miren Amuriza berriztarra eta Beñat Ugartetxea mallabitarra. Txapelketan egindako bideagaz gustura daude biak. Irabazleari Xabier Amurizak jantziko dio txapela. > 10-11

Gogotsu, finalaren zain

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ
Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550
alkimax@alkimax.net / www.alkimax.net

GERNIKA
Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310





FAROLAK



INFRAGORRIAK



AIRE KAINOIA



ERRADIADOREAK



HEZETASUN
KENGAILUAK



MOTOBONBAK



BONBA
URPERAGARRIAK

Durangaldea > 2

Urienek, Basabek eta Isasik irabazi dute 365 ipuin lehiaketa

Durango > 4

Oarbeaskoa-Madrado familiak Momotxo taberna utziko du

Otxandio > 5

Lapurretei aurre egin ahal izateko, batzarra deitu du udalak

Abadiño > 7

Kalearteanek epaitegietara helarazi du galdeketa eskaria

Herririk herri

DURANGALDEA M. Onaindia Euskararen Egunaren harira #365 ipuin laburren lehiaketa antolatzen du Berbaro elkarteak, literaturaren bidez euskara plazaratzeko asmoz. Aurten 300 ipuin inguru jaso dituzte, eta, horregatik, pozik agertu dira eduki duen harreragaz. Eguaztenean Plateruena kafe antzokian burututako ekitaldian iragarri zuten Ainhoa Urien, Andrea Basabe eta Maider Isasi izan direla aurtengo irabazleak. ANBOTO astekariko zuzendariak, Jone Guenetxeak, gidatu zuen ikuskizuna.

Twitter bidezko lehiaketan atera da garaile Ainhoa Urien. Hauxe da bere lan saritua: "Iragana ez deusezte aldera gure amonak ez zituen egunak egutegitik ezabatzen. Horregatik, oraindik gure artean dagoela dirudi". Atal horretako epaile

300 ipuin inguru jaso dituzte, eta, horregatik, pozik agertu dira eduki duen harreragaz

Ainhoa Urienek, Andrea Basabek eta Maider Isasik irabazi dute #365 ipuin lehiaketa

Eguaztenean burutu zuten lehiaketako sari banaketa ekitaldia Durangoko Plateruena kafe antzokian



Lehiaketako irabazleak eta epaile lanetan ibili diren sortzaileak, ekitaldiaren amaieran.

izan den Nagore Txintxurreta diseinatzailearen eskutik jaso zuten saria; 100 euro eta Hitz, Arteka eta Urrike dendek eman-

dako liburu sorta bat. Urienen ipuinean oinarrituta, irudi bat sortu du Txintxurretak.

Twitterrez aparte, poston-

tzietan ere utzi ahal izan dira ipuin laburrak. 18 urtetik gorako mailan, Andrea Basabek irabazi du. "Handitan, txikitan

nintzena izan nahiko nuke: gauza txikienarekin zoriontsua eta koloretako munduaren protagonista"; ipuin hori aukeztu zuen lehiara. Jon Ander Urkiaga idazleak hartu du erabakia, eta ekitaldian bertan, idazlan bat irakurri zuen Basaberen lana kontuan hartuta. Saridun honek ere 100 euro eta liburu sorta bat eskuratu ditu.

Hirugarrenik, postontzian jasotako 18 urtez beherakoen artean, Maider Isasiri eman zion saria Xabier Zabala bideogileak. Tablet bat eta liburuak jaso zituen gazteak. Bere esaldiaz, bideo bat landu du Zabalak, eta Plateruenean proiektatu zuten. Hona hemen Isasiren ipuina: "Aireak hegaka ekarritako hazia lurrean ernatu eta goizeko ihintzak busti zuten, ekaitzaren txinparta bategi kiskali zuen arte".

A-8rako laguntzak eskatu ahal dira jada, 30 eurotik gora ez ordaintzeko

Aldundiaren sistema berriagaz, laguntza eskatuz gero muga ezarri ahalko da

DURANGALDEA M.O. Urtarriletik aurrera, A-8 autobidea erabiltzen dutenek ez dute hilean 30 euro baino gehiago ordaindu beharko. Izan ere, Aldundiaren sistema berria ezarriko du, eta diru-laguntza eskatuz gero ordaintzeko muga hori ezarri ahalko da. Sistema hori bateratua izango da, A-8, Hegoaldeko saihebidetara eta Artxandako tunelak barne hartuko dituena.

Diru-laguntzak eskatu ahal dira jada, Aldundian bertan edo

ta Internet bidez; www.bizkaia.eus atarian sartu eta tramiteak

Sistema hori bateratua izango da; A-8, Hegoaldeko saihebidetara eta Artxandako tunelak barne hartuko ditu

betetzeko aukera dago. Eskatzaileek autoa detektatzeko gailua eduki beharko dute konekta-

tuta, eta hilea amaitu eta gero 30 euroko muga pasatzen badute, hurrengo hilean bueltatuko die soberan geratutakoa.

Aldundiaren arabera, 2.700 lagunek baino gehiagok eman dute izena laguntza jasotzeko.

Baina, A-8ko bidesariaren aurkako plataformak uste du neurriak ez duela arazoa konpontzen, eta protestekin jarraitzen du. Dagoeneko laugarren karabana edo auto-ilara burutu dute.

Elkartasuna erakutsiko diote herri kurduari

Zenbait lagun Kurdistanen egon ziren udaberrian

DURANGALDEA M.O. Kurdistanen aldeko manifestazioa hartuko du bihar Bilbok. 12:30ean aterako da Plaza Eliptikotik, eta Arriagan amaituko da. Otxandioko eta Durangoko zenbait lagun Kurdistanen egon ziren udaberrian, eta hain zuzen ere, eurak izan dira manifestazioaren sustatzaileak.

Turkia, Siria, Iran eta Irakeko mugen barruan kokatzen da Kurdistan. Urte luzetako borrokan dihardute, eta azkenaldian

eremu bi egin dira ezagun: Rojava (Siria) eta Bakur (Turkia). Rojavan Estatu Islamikoa garaitzea lortu duten bitartean, Bakurren –eta dagoeneko Turkia osoan– errepresioa jasaten ari dira Turkiako gobernuaren partetik. Azken astean bertan HDP alderdiko 200 kide atxilotu dituzte, adibidez.

Kurduei elkartasuna erakustez aparte, Europar Batasunak Turkiagaz duen harremana ere salatuko dute manifestazioan.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko abenduaren 16a
14. urtea - 658. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Ordezko pediatren faltan, hainbat zerbitzu eten egin dira

Beraien herrietako zerbitzua bertan behera zegoela-eta, pediatarrengana Traña-Matienara joan behar izan zuten hainbat herritatik, joan zen astean



Traña-Matienakoa da eskualdeko erreferentziako zentroa.

DURANGALDEA I. Esteban
Pediatría zerbitzurik barik egon ziren, joan zen astean, Zaldibar, Berriz, Atxondo, Elorrio eta Abadiñoeko Zelaieta auzoko anbulatorioetan. Durangaldeko lehen mailako osasun arretako arduradunek azaldu dutenez, aipaturiko bost osasun zentro horietan umeak artatzen lan egiten duten lau medikuetatik hiru falta izan ziren joan zen astean, eta ordezkotak bakarrik etorri ziren.

Ezinezkoa zen langileen ordezkapenik barik herririk herri ohiko zerbitzua eskaintzea. Horrela, eta zerbitzuko arduradunek azaldu dutenez, garraio publiko bertaratzeko aukera gehien eskaintzen duen zentroa delako, Traña-Matienako osasun zentrori bideratu zituzten Zaldibar, Berriz, Atxondo, Elorrio, eta Abadiñoeko Zelaieta auzoko umeak.

Iñaki Intxausti da eskualdeko lehen mailako osasun arretako koordinatzailea, eta haren berbetan, “arreta ziurtatzea” izan zen helburua joan zen aste egoeran. Premiazko kasuak bakarrik artatu zituzten Traña-Matienako zentroan. Inguruko herrietako erabiltzaileei ere zerbitzua eman ahal izateko, premiazkoak ez ziren kontsultak atzeratu egin behar izan zituzten. Hainbat herritarrek helarazi diote beraien kexa Osakidetzari.

“Pediatra falta”
Durangaldeko anbulatorio horietan joan zen astean gertatu zena euskal osasun zerbitzu publikoak daukan arazo orokor baten isla izan da, arduradunen berbetan. Pediatrek dagozkien baja edo opor egunak hartzen dituztenean, ordezkapenak egiteko eskuragarri dagoen

langile zerrenda ez da beharizanari erantzuteko bestekoa. “Pediatra falta dago, eta medikuek ez dute espezialitate hori hautatzen”, Iñaki Intxaustiren berbetan. “Arazo larria da daukaguna”, dio Intxaustik, “eta itxura guztien arabera, gero eta gehiagotan gertatuko zaigu; ez du soluzio errazik, baina bilatu beharra dago”.

Durangaldeko egoera
Osakidetzak ezarritako ratioen arabera, 800 umetik gora dauden lekuetan egokitzen da pediatra baten zerbitzua edukitzea. Berriz, Zaldibar, Abadiñoeko Zelaieta auzoa eta Atxondo ez dira gutxieneko horretara ailegatzen, eta bi medikuk dihardute lau zentroetan lanean. Bestalde, Traña-Matienan eta Elorrioren pediatra bana daukate, bost daude Durangon eta Iurretan, eta hiru Zornotzan.

Solidaritatez betetako tonbola Berrizen

Berrizko Caritaseko emakumeek antolatzen duten tonbolak 25 urte beteko ditu asteburuan

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Urte osoan herriko hogeitabat emakume egindako lanak fruituak eman ditu berriro ere. Berrizko Caritaseko emakumeek 25. Tonbola Solidarioa egingo dute asteburu honetan. Gaurtik domekara, goizez (10:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-20:00) euro baten truke tonbolan parte hartzeko aukera egongo da.

“Urtero egiten duten bezala, aurtengoan ere herritarrei dei egiten diegu tonbolan parte hartu dezaten”, adierazi dute antolatzaileek. Gainera, gaurtik martxan dagoen ekimen honetan, 1.400 sari banatuko dituztela jakinarazi dute. Sari horiez gain, 25. urteurrena ospatzeko, tonbolak irauten duen hiru egunetan, hiru sari berezi banatuko dituzte Berrizen daukaten lekuean.

Bestalde, hiru egun hauetan batutako diruaren zati handi bat hiru misiolari jasoko dutela jakinarazi dute; Mexikon dagoen Jesus Jose Berrizbeitiak, Venezuelan dagoen Marije Aztegiak eta Kongon dagoen Tere Iriondok. Gainontzeko dirua, berriz, herriko parrokiari

laguntzeko eta Berrizko Caritasantzat izango da.

Mende laurden lanean
Duela 25 urte Zaldibarren antzerako zerbait egiten zutela jakin, eta beraien herrian ere tonbola bat egitea erabaki zuten hainbat herritarrek. “Lehenengo urtetik gure ekimenak

Euro baten truke egongo da aukera tonbolan parte hartzeko, goizez zein arratsaldez

1.400 sari eta beste hiru opari berezi banatuko dituzte gaurtik domekara bitartean

erantzun bikaina izan du herrian”, aitortu dute antolatzaileek. “Gainera, jakin badakigu herritarren laguntzarik eta esker onik gabe tonbola honek ez lukeela arrakastarik izango”, baieztatu dute.



Caritaseko emakumeek tonbolako azken prestaketa lanak egiten.

**AZAROAREN 28tik ABENDUAREN 31ra VIALIDER-EN
MICHELIN PNEUMATIKOAK EROSITA**

x4
pneumatiko

gabonak

ekarriko dizkizugu etxera

x2
pneumatiko

Promotioak 2016ko azaroaren 28tik abenduaren 31ra bitartean bakarrik baliagarriak dira. Aukeratu zure zerbitzua eta zure erabakia. Garrantzitsua da baldintzak irakurtzea. Garrantzitsua da MICHELIN pneumatikoak erosi behar direla, aukeratu behar diren aukerak. Garrantzitsua da MICHELIN ibilgailuak. Promotioaren oinarriak www.vialider.es helbidean daude zure Vialider salbitan eskuragarri.

Neumáticos Etxebarria

Uribitarte Industr. 6 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com

Informatu zaitez eta bilatu zure tailerra
www.vialider.es

Jarrai gaitzazu



Ekain, Oier, Mari Carmen eta 'Txikito', euren lantoki izan den Momotxo tabernan.

“Momotxon behar asko egin dugu, baina bertan sortu dugun giroagaz geratzen gara”

Abendu amaieran taberna utziko dute Oarbeaskoa-Madradoz familiakoek

DURANGO M.O.

Etxean bezala hartu dituzte bezeroak 12 urtez. Berezkoak dituzte gertutasuna eta umorea, eta lanez gainezka sarri egon arren, aurpegi txarrik inoiz ez. Momotxo taberna utzi egingo dute Oarbeaskoa-Madradoz familiakoek abendua amaitzerakoan, eta, urte berriagaz, etapa berri bat hasiko dute bizitzan. Jende askoren erreferentziatzeko taberna izan da, eta tabernari-bezero logikatik harago sendotu dituzte hartu-emanak kasu askotan. “Momotxon behar asko egin dugu, batez ere aitak eta amak, baina bertan sortu dugun giroagaz geratzen gara”, esan du Oier semeak. Tabernan batu izan diren bezero gutzietik eskerrak eman gura dizkiete Jose Julian *Txikitok*, Mari Carmenek, Oierrek eta Ekainek. “Jakin dezatela oso eskertuta gaudela”, dio amak.

Momotxoko gestioa hartuta, “esperientzia berri bat” topatu gura zuela azaldu du *Txikitok*. “Tabernaren jabeagaz kalean elkartu eta esan zidan errentan ipintzeko zeukala, eta horrela hasi ginen”, ekin dio kontakizunari. Andre-gizonez gainera, semeak ere hasi ziren laguntzen barran. “Ez nekien zer zen klarete bat, zer rueda bat... Sekula tabernan lanik egin barik, eta hasierako hileak gogorrak izan ziren”, aitortu du Ekainek. An-

tzeko akordua dauka anaiak: “Ez zitzaidan tabernan lan egitea gustatzen, eta gogorra egin zitzaidan. Astiro-astiro ikasten joan nintzen”.

Arguiñanorena

Ardoa, pintxoak, hegaltxoak, ogitartekoak eta abar eskaintzen joan ahala, denbora aurrera joan da. Bezero famatuak ere eduki izan dituzte, Karlos Arguiñano sukaldaria, adibidez.

“Asko, auzoko jendea, bezero izatetik lagun izatera pasatu dira”

OIER OARBEASKOA

Durangoko Azokako egun batez bertaratu zen, *Txikitok* oroitzen duenez. “Salda atera nion, eta gozoa zegoela esan zidan. ‘Zurea ere txarra ez da egongo, bada’, erantzun nion nik [barrez]. Joango nintzateke ni ere bere jatetxera...”. Gero, Durangora etorri gero Momotxoko hegaltxoak probatu barik ez geratzeko bota zuen Arguiñanok telebistan. “Telebistan aipatu zuenean, aste osoko hegaltxoak 2-3 egunetan saldu ziren”, azaldu du Ekainek.

Horrez gainera, makina bat anekdota dituzte; arroz-esnea-

ri gatza bota ziotenekoa, edota kafeari limoia botatzea eskatu ziotenekoa, hainbaten artean.

Momentu onak bizi izan dituzte urteotan, baina tabernak lan handia ere eskatzen du. “Asteburuetan lan egitea oso gogorra da, jendeak ez du hori ikusten”, aipatu du *Txikitok*. Berak jubilazioa hartuko du, eta gestioan belaunaldi aldataririk ez da emango. Erabakia hartuta eduki arren, maitasunez begiratzen dute atzera, Oierren berbetan. “Pena handia ematen dit, batez ere bezeroekin lortu dugun harremanagatik. Bezero asko, auzoko jendea, bezero izatetik lagun izatera pasatu dira”, adierazi du semerik zaharrenak.

Bide berria

Taberna uztearen albistea trisuraz hartu dute euren bezero ugarik. “Hauxe esaten digute: ‘Eta orain, zer egingo dugu gure?’. Bada, etorriko gara eta hartuko dugu txikito bat elkarregaz”, proposatu du aitak. Bere sasoi puntista ezagun izan zen hemen, baita Amerikan edota Indonesian ere, eta ofizio hartatik datorkio *Txikito* motea. Tabernako esperientzia jorratu ostean, lurra jorrazera pasatuko da: “Ortua ipini behar dut, astoa erosi, perretxikotan joan...”. Bide berri bati ekingo diote laurak, irribarra lagun dutela.

Zebra-bide berriak margotu ditu EH Bilduk

Durango hainbat “desira-bide” daudela diote

DURANGO M.O.

EH Bilduk zebra-bide berriak margotu ditu Landakon eta Sasikoan, eta “herritarren nekearen irudi” direla kritikatu du. Koalizioaren ustez, Durango hainbat “desira-bide” daude; hau da, zebra-biderik egon ez arren, jendeak naturalki errepidean gurutzatzen dituen guneak. Zebra-bide horiek sortzeko udalean eskaerak egiteaz nekatuta daudela-eta, iniziatiba hartu dute EH Bilduko kideek. Mugikortasunaren inguruko azterketa orokor bat behar dela uste dute, oinezkoen harrapake-ta gehiago egon ez dadin.

Zuzendari barik

Bestalde, atzo prentsurrekoa eskaini zuen EH Bilduk, Lanbide Heziketako Institutuaren egoeraz informatzeko. LOMC-en eraginez, Amankomunazgoak barik udalak kudeatzen du zentroa, eta, euren ustez, ordutik arazoak egon dira. Finantziaraziorako, udalak hitzarmena sinatu behar du eskualdeko udalekin, baina oraindik lotu barik dago. Zentroko zuzendaria ipini barik dagoela, edota materiala lortzeko diru falta eduki dutela salatu dute. “Irakasleak kezkatuta eta egoera prekarioan daude”, dio Eider Uribek.



EH Bilduk Sasikoan margotutako zebra-bidea, tren geltokirako pasabidean.

Bidezko merkataritza sustatuko dute

DURANGO M.O.

San Antonio-Santa Rita ikastetxe DBHko 3. mailakoek bidezko merkataritza sustatuko dute, egunotan zabaldu duten

Eskolako atean zabaldu dute denda, Komentukalen, eta 21era arte egongo da

denda baten bidez. Eskolako atean zabaldu dute denda, Komentukalen, eta abenduaren 21era arte egongo da.


Ikasleen helburua bertan salduko diren produktuak prezio justu batean erostea da, “ekoizpen ekologiko bat bermatuta eta giza-eskubideak babestuta”, oharrean azaldu dutenez. Irabazi horregaz, ekoizleek euren elkartearen garapenean ere inbertsioa egingo dute.

Indarkeria matxista bertso eta komiki bidez azaleratuko dute

DURANGO M.O.

Guatemalan eta Kongon emakumeek bizi dituzten indarkeria egoerak ezagutzera eman go dituzte gaur, eta, horretarako, bertsoa eta komikia erabiliko dituzte. Medicus Mundi erakundeak indarkeria matxistaren aurka dihardu herrialde horietan, eta bera da antolatzailea, Durangoko Udalgaz batera. Kontzientzia kritikoa sustatu gura dute, eta Durangoko egoeraz hausnartzeko ere baliatu gura dute. Bertso saioa gaur egingo da, 20:00etan, Plateruenean. Hiru euro balioko du sarrerak, eta, saioaz aparte, luntxagaz ere gozatu ahalko da.

Guatemalan eta Kongon egindako komiki tirak izango dira bertsoetarako abiapuntu. Erika Lagomak gidatuko du saioa, eta Alaia Martinek, Miren Artetxek eta Nerea Elustondok abestuko dute.



URTEKO AZKEN

bertsa saioa

maialen lujanbio zugasti

miren amuriza plaza

amets arzallus antia

igor elortza aranoa

GAI JARTZAILEA: UNAI ITURRIAGA ZUGAZA-ARTAZA

ABENDUAK 30 / 22:30 / PLATERUENEAN
SARRERAK: ARRUNTA: 8 EURO / BAZKIDEAK 5 EURO
SARRERAK SALGAI BERBARON ETA PLATERUENEAN



Artelalen dago Otxandioko taberna eta denda kopururik handiena.

Lapurreten aurrean, protokolo bat adosteko batzarra egingo dute

Dendari, tabernari, Ertzaintza eta udalaren arteko batzarra izango da

OTXANDIO J.Derteano.

Urrian eta azaroan lapurreta kasuen gorakada bat eman da Otxandion. “Tabernetan sartu dira, eta etxe partikularretan sartzeko saiakerak egin dituzte”, azaldu du Urtzi Armendariz alkateak. Horren aurrean, biler bat prestatzen ari da udala. Batzar horretan ostalariak, tabernariak eta Ertzaintzako ordezkariak egongo dira, eta lapurretei aurre egiteko protokolo eraginkor bat zehaztea izango da helburuetako bat. “Oraindik

ez dago eguna zehaztuta, baina urtea amaitu aurretik izan dadin saiaturiko gara. Urtea amaitu orduko ezin bada, datorren urtean izango da, baina batzar hori egingo dugu”, segurtatu du alkateak.

“Egoera ez da hobetu”

Lapurretak ez dira berriak herrian. Aurtengo lehenengo hila-beteetan ere hainbat kasu izan ziren, eta horren aurrean neurriak hartzeko eskatu zion udalak Ertzaintzari. Honek zaintza

areagotuko zuela erantzun zien. Ertzainen patruila bat ibiltzen da kaleak zaintzen, Armendarizek onartu duenez, baina ez du uste arazoari aurre egiteko eraginkorra denik. “Lapurretak jarraitu dute, egoera ez da hobetu. Guk dugun sententzia da lapurreta kasuak handitu edo gutxitzen direla lapurrek euren gura dutenaren arabera, eta ez Ertzaintzaren neurriengatik. Urte hasieran geneukan ezinegon bera dugu urte amaiera honetan ere”, gaineratu du.

Urtarrilean zehar hasiko dituzte plazako lanak

Udaletxeko obrak, berriz, amaitzear daude



Udaletxeko sarbide berria aterpetik izango da.

ATXONDO J.Derteano

Plazaren eta udaletxearen artean dagoen eremua oinezkoentzako ikuspegiagaz birmoldatzeko lanak urtarrilean zehar hasiko dituzte. Udaletxeko lanak amaitzear daude, eta oportetarik bueltan ekingo diote plaza birmoldatzeari, obra horiek guztiak egiteko ardura duen Lasuen enpresako Gorka Lasuener esanetan.

Horrela, urtarrileko lanen barruan udaletxea eta frontoi pareko plaza eremu berean batu gura dituzte. Euskalerrria kalean, Taberna Txikitik bidegurutzerainoko bide zatia goratu gura dute, guno osoa maila berean geratu dadin. Horrek pla-

zako hesiak kentzea ekarriko luke, eta aulkiak birkokatzea.

Udaletxeak sarrera berria

Udaletxeko lanei dagokienez, barrura sartzeko sarbide berri bat egin dute aterpea dagoen aldetik. Orain arte espaloira ematen zuten sarrerak. Ate horrek lehengo lekuan jarraituko du, baina itxita egongo da. Bestalde, barruko hainbat gela zein aterpea pintatu dituzte, sarreran zeuden mailak arrapala leun bategatik ordezkatu dituzte, eta eskaileretako alfonbra kendu eta pinkya bota dute. Igo-gailuko lanak amaituta daude, eta datorren astean zehar mar-txan jartzea da asmoa.

Bazkaria egingo dute 24an, Olentzerogaz irten eta gero

GARAI M.O.

Badatoz Gabonak, eta Garain ere ospatuko dute sasoi berezi horren etorrera. Hain zuzen ere, hilaren 24an, Olentzerogaz aterako dute herritik. 10:00etan ipini dute hasiera emateko hitzordua, eta auzorik auzo joango dira elkarrekin. Eguerdian, bazkaria egiteko aprobetxatuko dute gainera, parte hartuko duten guztiekin.

Arratsaldean kalejiran jarraituko dute, faltako zaizkien baserrietara ailegatzeko.

10:00etan ipini dute hasiera emateko hitzordua, eta auzorik auzo joango dira

Su hartu du baserri bateko tximiniak

Barruan zeuden hiru pertsonak ez ziren zauritu

MALLABIA J.D./J.G.

Joan zen barikuan, 21:20 inguruan, su hartu zuen Mallabiko Berano Nagusi auzoan dagoen baserri bateko tximiniak. Une horretan hiru lagun zeuden barruan, baina euren kabuz irten ziren eta suak ez zuen zauriturik eragin, Ertzaintzak informatu zuenez. Jurretako eta Arrateko parkeko suhiltzaileak bertaratu ziren eta sua itzali zuten. Larrialdi zerbitzuko unitate bat ere joan zen.

Suhiltzaileen aholkuak

Urte honen hasieratik suhiltzaileek 55 aldiz esku hartu dute tximinietako suteak itzaltzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak, Suhiltzaile Foru Zerbitzua-ren bitartez, neurri eta aholku sorta prestatu du etxean tximinia erabiltzen duten he-

rritarrentzat, istripuak saihesteko asmoz. Ildo horretatik, sei prekaudio-neurri ezagutzera eman dituzte. Sarri pizten diren tximiniak ondo egokitu eta garbitu behar dira, batez ere, tximiniaren tiroa. Egur lehorra erabiltzea gomendatzen dute. Prebentzioko neurri gisa, tximinia dagoen gelan aireztapen ona egon behar da. Alfonbrak, altzariak, jantziak... tximiniaren gainean edo tximiniatik hurbil ez jartzea gomendatzen dute, erradiazioaren bitartez jasotzen duten beroagatik su hartzeko arriskua dutelako. Lotara joaterakoan tximinia piztuta ez uztea gomendatzen dute, sutea hasteko arriskua dago eta. Azkenik, tximinia dagoen etxetan suteen aurkako neurri moduan su-detektagailuak jartzea komeni dela azpimarratu dute.

Goiuriako ur-hornidura sarea berrizatzeko 135.000 euro erabiliko ditu udalak

Iurretan, alderdi guztien adostasunagaz onartu dute 5,72 milioi euroko udal aurrekontua 2017rako



Goiuria auzoko ur-hornidura sarea berriztuko dute 2017an. Horretarako bideratuko dute inbertsio atalik potoloena.

IURRETA Aitziber Basauri
Alderdi denen adostasuna izan duen 5,724 milioi euroko udal aurrekontua onartu dute 2017rako Iurretan; aurten baino %3,3 gutxiago izango dute 2017an. Inbertsioen atala ere jaitsi egingo da, 1,05 milioi eurotik 825.000

eurora. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, “Udal-kutxatik jasotako dirua %4 bajatu da, eta zerga eta tasak lehengoan mantenduko dira datorren urtean. Horrek eragin zuzena izan du inbertsioetan”. Egoera ekonomikoak baldintzatutako

aurrekontua “orekatua” dela aitortu du Totorikaguena.

Izan ere, kultura zein gizarte ongizaterako oinarri zerbitzuak lehengoan mantenduko dituzte. Baita herritarrei bideratutako diru-laguntza guztiak ere. Hori kontuan hartuta, “diru kopuru

potoloa” da inbertsioetarako gordetako, Totorikaguena alkatearen berbetan.

Goiurian ur-hornidura sarea

Goiuria auzoko ur-hornidura sarea berrizatzeko 135.000 euro lotu dituzte; inbertsio atalik potoloena da hori. Era berean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) lantzen hasteko, 90.000 euro gordeko dituzte. Hasierako dokumentua eta herri-partaidetzarako agiria da datorren urtean egingo dutena. HAPO osatzeko, 3-4 urte beharko dituzte, 275.000 euro inguru eskatuko ditu, alkateak gogoratu duen lez.

Udaletxeko klimatizazio sistema gasoleotik geotermiara pasako dute eta horretarako 85.000 euro lotu dituzte. Maiztegi herri eskolan (50.000 euro), biblioteca berrian (35.000 euro) eta auzoen argiztapena berritzen jarraitzeko (40.000) ere aurreikusi dituzte inbertsioak. Herriko ibilbide sarea gauzatzeko, berriz, 30.000 euro erabiliko dituzte.

Herritarren ekarpenak

Herritarren proposamenak garatzeko, 25.000 euro ere jaso ditu aurrekontuak, EH Bilduk proposatuta. “Faltan ikusi du-

gu herritarrei galdetzea; dirua zertan erabili erabakitzeke aukera ematea. Ikusteko dago nola joango den, baina, interesgarria deritzogu”, azaldu du Liher Aiartzaguenak. Urte hasieran, herritarren ekarpenak batzeko foroak egitea aurreikusi dute.

Beste alde batetik, PSE-EEK proposatuta, baztertze egoeran egon daitezkeen pertsonen bideratutako laneratze eta gizareratze plana (18.000 euro) ere jaso du aurrekontuak.

Goiuriako ur-hornidura sarea berrizatzeko 135.000 euro lotu dituzte; inbertsio atalik potoloena da hori

Herritarrek proposatutako proiektuak garatzeko 25.000 euro gorde dituzte, EH Bilduk proposatuta

EH Bilduko Aiartzaguenaren ustean, “premiei erantzuten” dien aurrekontua da onartutakoa, “ideala ez den arren”. Bere berbetan, “ez dira sasoirik onenak. Egoera ekonomikoak eraginda, urtez-urte jaitsi egin da aurrekontua, eta gauzak egiteko aukerarik ez dago”. Aurrekontua urtea hasi aurretik onartu izana “zoriondu”, eta “guztien lana eskertu” du.

Epaitegira helarazi du Kaleartean plataformak galdeketa eskaria

Azaroaren 28ko udalbatzan ere mahai gainean izan zen plataformaren eskaria



Plataformaren helegitea berraztertzea ukatu zuten Abadiñoko Independentiek eta EAJk.

ABADIÑO Itsaso Esteban
Bertan merkataritza-gune berriak zabaldu ahal izateko, Murruta auzoko lursail baten izendapena aldatzeko tramiteak burutzen dabil udala. Tramite horiekin jarraitu aurretik, gaiaren inguruko herri galdeketa egitea eskatuz, errekurtsioa aurkeztu du Kaleartean plataformak Abadiñoko Udalean.

Kaleartean plataforma: “Epaitegietakoa da gure eskubideak bermatzeko daukagun bide bakarra”

Uda aurretik hainbat astez eztabaidagai izan eta gero, Murrutako lursailaren birkalifikazioaren gaia udalbatzaren mahai gainean egon da berriro, azaroaren 28an. Kaleartean plataformak helegitea epez kanpo aurkeztu zuela argudiatuta, errekurtsioa ez berraztertzea erabaki zuten Aik eta EAJk, gehiengoz. EH Bilduk eskaria

aintzat hartzearen alde bozkatu zuen, Urrutia bozeroaleak azaldu duenez, “plataformak eskatzen duenagaz ados gaudelako”.

Bide judizialek

Udal gobernuak proposatzen duen birkalifikazioari buruz herri galdeketa bat egiteko eskaera epaitegietan ere badago, Kaleartean plataformak, udan, helegitea aurkeztu zuenetik.

Kaleartean plataformako kideen ustez, udaberrian galdeketa eskatuz bildu zituzten mila sinadurak Abadiñoko erroldaren %10 baino gehiago direnez, udala behartuta dago, legez, galdeketa bideratzera. “Gure eskubideak bermatzeko gelditzen zaigun bide bakarra da epaitegietakoa”, dio Unzalu Salterain plataformako kideak.

EH Bilduk garrantzitsu deritza epaitegietako bideari. “Euskal Herrian ez dago gai honi loturiko jurisprudenziarik, eta oso inportantea litzateke”, Urrutiaren berbetan, “parte-hartzeari dagokionez, guk defendatzen dugun eredu gailentzea”.

“Iazko emaitzak hobetzeko” asmoz egingo dute bigarren maratoi solidarioa

Haurren minbiziaren ikerkuntzan laguntzeko, egun osoko egitaraua burutuko dute, bihar



Herriko hainbat elkartet eta aurpegi ezagunek egutegi solidarioan parte hartu dute.

ZALDIBAR Aimar Esteban Maratoi solidarioaren bigarren edizio honetan egun osoko egitaraua prestatu dute jendearen kontzientzia pizteko asmoz. Iaz-

ko arrakasta ikusirik, aurten “emaitzak hobetu edo behintzat berdintzea gura dugu”, adierazi du Andoni Mesak, Los alakranes del norte elkarteko kideak.

10:00etan hasita, tonbola eta zumba solidarioa egingo dituzte. Ondoren, eguerdian, kontzertuak hasiko dira. Lehenik, El Reciclador 10 Berrizko kantau-

torea, eta ondoren, Izaro Andres igoko dira eszenatokira. Arratsaldean saskibaloia partidua jokatuko dute Zalduea eta Tabirakoko beterranoek. 18:00etan txokolatada egingo dute, eta Oihan Vegak eta Ermuako Inshomnio taldeak emango diote amaiera jai egunari.

Tonbolari dagokionez, “Sari gehiago heldu zaizkigu aurten. Adibidez, Jon Fernandez boxeoko munduko junior txapelidunaren eskularruak, Athleticen kamisetak sinatuta, jostailuak edo hainbat artisten diskoak, besteak beste”, dio Mesak.

Egutegi solidarioa

Egutegi solidario bat ere egin dute, eta herriko hainbat elkar-

tek parte hartu dute bertan: Zaldibarko Gaztetxeak, Helmuga Emakumeen Elkartek, Zaldueko saskibaloia taldeko beterranoek, egur lanketa taldeak, triatloi, padel eta arku jaurtiketa taldeak, Zalduea Mendi Taldeak, Txintxaur Aisialdi Taldeak eta Nagusien Elkartek. “Jendea gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari da”, azaldu du Mesak. Hainbat ezagunek ere beraien irudia jarri dute egutegian. Oihan Vega aurkezlea, Storm, Ska-P, Vulpes edo Hora 13 taldeko kideak eta Jon Gurrutxaga abeslaria agertu dira argazkietan. Bi mila ale atera dituzte, eta Zaldibarko eta Durangonko hainbat lekutan daude salgai. Biltzen den diru kopurua La Cuadri del Hospi-rentzat izango da.

Mesa hezur-muin emalea da, eta, bere ustez, “Durangaldean jendeak ekonomikoki nahiko laguntzen duen arren, emaleak behar dira; jendea emale egitea animatzen dut, ez du minik egiten-eta”, adierazi du.

Konposta egiten ikasi ahalko da eguaztenean

Formakuntza saio bat emango dute udaletxean, etxean nork bere konposta egiten irakasteko

IZURTZA J.Derteano Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak hondakin organikoak birziklatzeko kanpaina abiatu du Izurtzan eta Mañarian, besteak beste. Kanpaina horren helburuetako bat nork bere etxean konposta egiteko baliabideak eta formakuntza eskaintzea da. Bide horretatik, eguaztenean, 19:00etan, formakuntza saioa eskainiko dute Izurtzako udaletxean. Eguenean, 19:00etan, Mañariko udaletxean izango dira.

Lorategi, baratze eta lursail bat duten etxebizitzetara bideratutako saioak dira. Formakuntza ez ezik materiala ere emango dute. Saiotara doanak kon-

post-ontzi, aireztagailu eta konposta nola egin azaltzen duen esku-liburu bana jasoko du. Materiala jasotzeko, beharrezkoa da aurretik izena ematea. Horretarako, bide bi ireki dituzte: 94 623 25 22 telefonoa eta organikoa.mdurango@bizkaia.org helbide elektronikoa.

Bosgarren edukiontzia

Aurtengo abenduan bosgarren edukiontzia ere jarriko dute herri bietan. Izena eman dutenei materia organikoa birziklatzeko material sorta bana banatuiko diete: etxerako ontzi marroi bat, poltsa konpostagarria eta kaleko edukiontzia irekitzeko giltza, besteak beste.

Elikagaien Bankuagaz aurrera jarraituko dute

Batez beste, 9 familiari eman diete laguntza hilero; 2018ra arte martxan egoteko hitzarmena sinatu dute



Lertxundi, Buruaga eta Martinez hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

ELORRIO M.O.

2014an ipini zuten martxan Eloorriko Elikagaien Bankua, eta hitzarmen berri bat sinatu dute orain, egitasmoagaz aurrera jarraitzeko. Momentuz, 2018ko urtarrilaren 31ra artekoa izan-

go da hitzarmena. Beharrezko bada goela ikusi dute ardurdunek. Izan ere, batez beste, 9 familiari eman diete laguntza hilero. Horrela, jatekoa Eloorrion bertan jaso ahal izango dute, beste banku batera laguntza

eskatzera joan beharrean. Udalaren iritziz, hilero lagundutako familien datuak argi uzten du Eloorrion badirela benetako eta oinarriko beharrezkoak dituzten hainbat herritar. “Horrela egoeran bizi diren familiak ditugun bitartean, elikagai bankua ezinbesteko tresna izango da”, esan du Xabier Dominguez alkateordeak.

Hala ere, beharrezko hori ez egoteko esperantzaz, udaletik pobreziaren aurka lan egingo dutela dio Dominguezek.

Kainabera eta Eroskigaz

Udalagaz batera, Kainabera elkarteak eta Eroski fundazioak parte hartzen dute Elikagaien Bankuaren egitasmoan. Horretatik, hitzarmenaren sinadura ekitaldian egon ziren Jesus Mari Lertxundi (Kainabera) eta Alejandro Martinez (Eroski fundazioko zuzendaria), Idoia Buruaga alkateagaz eta Dominguez alkateordeagaz batera.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuak menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

anboto.org
MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.
Pertsonalizatu, zure herria aukeratu.

DESKARGATU DOAN!

Ikasleek diskriminazio egoerak jaso dituzte 18 bideo lanetan

'Not in my town' bideo lehiaketak aurtengo lau lanik onenak saritu ditu



14 urtetik gorako ikusleen saria irabazi duten gazteak saria jasotzen.

ZORNOTZA Joseba Derteano Gazteen arteko diskriminazio egoeren gaineko hausnarketa eragin guran, Ametx Gazteria sailak *Not in my town* bideo lehiaketa abiatu zuen orain hiru urte Aurreko aldi bietan hama bina bideo-lan aurkeztu ziren, eta aurtengo hemezortzi jaso dituzte, inoiz baino gehiago.

Joan zen zapatuan Zelaieta Zentroan egin zuten sari banaketa ekitaldia. 14 urtetik gorako saria —epaimahaiarena— Elaia Martinezek, Ane Sanchezek eta Xabier Gorostia-

gak irabazi zuten Stop Bullying izeneko bideo-lanari esker. "Oso ondo azaltzen dute eskola-jazarpena zer den, informazioa ematen dute eta, gainera, konponbideak eskaintzen dituzte", adierazi du David Murillo Ametx Gazteriako koordinatzaileak. Bullying kasuen aurrean, 'Gaur ezezagun bat da, baina bihar zu izan zaitezke. Ez beldurrik izan eta kontatu' da bideo-lanean zabalitzen duten mezua.

14 urtetik gorako beste saria —ikuslearena— *Homofobiarik ez lanarentzat* izan zen. Lan ho-

nek 594 boto jaso zituen internet bidez, eta hauek dira egileak: Mikel Vadillo, Ainara Bilbao, Ainara Rodriguez, Iraide Bidegain, Iker Ramirez, Sandra Palacios eta Sergio Marquez.

14 urtetik beherakoak

14 urtetik beherakoetan atalean ere beste sari bi banatu zituzten. *Ni naizena naiz* bideo-lana izan zen onena epaimahaiaren ustez. Ikuslearen saria, berriz, *Beldurrik ez* lanari eman zioten. 542 boto jaso zituen guztira lan horrek.

Negulekuak antolatu dituzte Gabonetarako

MAÑARIA M.O.

Herriko umeek Gabonetako oporraldian aisialdirako aukera bat eduki dezaten, Negulekuak antolatu ditu udalak. Abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 5era arte, askotariko ekintzetan disfrutatu ahaliko dute ume mañariarrek.

Inskripzioa zabalik dago, eta datorren astelehena —abenduak 19— baino lehen eman behar da izena, udaletxean edota liburutegian. Bost egunerako prezioa 60 eurokoa izango da, eta bederatzi egunerako prezioa 100 eurokoa. Udalak azaldu duenez, gutxienez zortzi haurrek eman beharko dute izena jardunaldia aurrera atera ahal izateko.

Negulekuen ordutegia 09:30etik 13:00etara bitartekoa izango da. Egitaraua ere

Abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 5era arte, askotariko ekintzetan disfrutatu ahaliko dute

zehaztuta dute, eta anitzak dira proposamenak: jolasak, sukaldaritza tailerra, ginkana, Gabonetako arbola eta panpina sortzea... Aspertzeko ez dute betarik izango.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RIOS
SQ-2D



2016ko balantzea

2016a amaitzen ari gara, eta, urtero bezala, urteko balantzea egiteko joera dugu. Aurtengo urtea "katastrazoak" markatuko du, Aldundiak eta Durangoko Udalak jarritako bidaiak, amaierarik ikusten ez diogunak. Maiatzean hasi zen zerga hau eguneratzeko odisea, baina presaka ibiltzea bidelagun ona ez den arren, eta ordutik birritan onartu den arren, urtea amaitu aurretik hirugarren bat ere egongo dela aurreratatu digute. Ohituta gaude, baina harrিতa ere bai.

Kudeaketa falta hau Durangoko Azokan ere geratu da begi bistan. Honelako ekitaldietan ohikoak dira sortzen diren eragozpenak: kaleak zikin, autoak espaloian gaizki aparkatuta, traban... Galdetu barik ere, bistan dago jendea ez dagoela pozik hori dela-eta. Eta arazoari serio aurre egin ezik, eragozpenak areagotu egiten da.

Baina baikorrak izatea atsegina dugunez, gauza onez hitz egiten amaituko dugu. Aurtengo, elkartasun keinu argiak ikusi ditugu. Adibidez, Ongi Etorri Errefuxiatuak Durango taldearen sorrera. Gizarte honetako gaitzen aurka borrokatzea posible dela ikusi dugu ostegunero, eta hala jarraitu behar dugula. Gutxi badira ere, urratsak eman ditugu etxegabetuen aurka, edo transnazionalen interes ilunen aurka.

Horiek horrela, jai zoriontsuak eta 2017 oparoa opa dizkizuegu. Gure partetik, Durangoren alde lanean jarraituko dugu, eta, batez ere, Durangorekin.

**Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

Bigarren eskuko azoka egingo dute, domekan

ELORRIO > Bigarren eskuko azokako 66 postu ipiniko dituzte plazan eta Berriotoxa kalean, abenduaren 18an, 09:00etatik 15:30era. Denetarikoa artikuluak egongo dira bertan salgai. Gabonetan ere, bestelako kontsumo eredu bat bultzatu gura dute azokaren 20. edizioaren antolatzaileek, berberaz berriago eta birziklapena bultzatuz.

Gabonetarako erosketa bonuak atera dituzte

DURANGO > Urtarrilaren 6ra bitartean, *D Txartela* kanpaina burutuko du Durangoko Udalak, Dendak Bai elkarteagaz batera. 5 euroan eskuratu eta 15 euroko balioan erabili ahaliko diren 1.900 bonu atera dituzte. Bonuak BBK-ko kutzazainetan hartu ahaliko dira, edozein bankutako txartela erabilita.

San Blas tarako langileen zerrenda

ABADIÑO > Urtarrilaren 9ra arte, udaletxean eman dezakete izena San Blas eguneko zereginetan lan egin gura duten 16 urtetik gorako langabeek. ENA, Bankuko kontu zenbakia, langabe txartela, eta Gizarte Segurantzako zenbakia aurkeztu beharko dituzte udaletxean, 09:30etik 13:30era.

IRITZIA

Fidel-Durango-Martí-Sabin

Azaroaren azken aldera Sta. Zezilia musikarien patroia eta gure artean bazkari-afarrietan ohiko *Festara*, *Illunabarra* eta abar sonoroen ondoren, nire gomutan, beste beroago ta gutarrago batzuk kantatzen zituzten gu baino nagusiagoek, lege haustearen ausardiaz eta horietako bat hau genuen: "*Sabin (Martí) no debió de morir/ por ser el Maestro y el guía/ si Sabin (Martí) no hubiera muerto/ otro gallo cantaría/ la Patria se salvaría/ y Euskadi (Cuba) sería feliz*". Nik kantu hau 60ko hamarkadan entzun-ikasi nuen Ijorretan. Gure euskotar nagusiok jarraitzen zuten esanez: *Cubako abesti bat dok hau, Martí zuan hango euron Maixu heroea, baina izena aldatuta guretzat be balio jok ...*"

Sabin Arana Goiri azaroaren 25 baten hil zen. Gure herritarrek Martí Maisuarekin alderatu zuten Cubak jaretsi zuen independentzia amestuz. Fidel Castro azaroaren 25ean hil da eta errautsak

Martiren ondoan loratuko omen dira.

Durango Euskal Liburu eta Diskoen kapitala dugun honetan berri bitxi bat: *durangar anaia abade bi, 36ko gudagatik errepre-saliatuak, Durangoko Kurutzia arrabalekoak, Cubara joan ziren don Fermin eta don Manuel Madariaga Ariño. Don Manuelek, Santiagoko Vicario Nagusi, Fidel Castro eta Mirta Días-Balart aldare aurrean esposatu zituen, don Fermin testigu ta laguntzaile bertan zela.*

Korapiloa gehitxoago estutuz, iragan zaigun azaro honetan gure hurbileko poeta den Joseba Sarrionandiak hari lauso horretan kulunkan Euskeraren katedra-aulkitxoan erdietsi du Martik bizi izandako eta Sabinekin amestutako *Antilla zintzilikatua*.

Anttonmari Aldekoa-Otalora Zamalloa (Iurreta)

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

Kultura

Miren Amuriza Plaza (Berriz, 1990) | Beñat Ugartetxea Ostolaza (Mallabia, 1979)

“Zortzitik zazpi lehen ere egon gara finalean, eta dugun onena ematera goaz bihar”

Bihar Bizkaiko Bertsolari txapelketaren finalean parte hartuko dute Amurizak eta Ugartetxeak

> BERTSOLARITZA I. Esteban Ugartetxea bizi den herrian, Zornotzan elkartu dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Durangaldeko finalistak. Txapelketaz eta bertsolaritzaz jardun dira tailer bateko langile ere baden mallabiarra eta bizi den herriko gaztetxoei bertso eskolak ematen dizkien berriztarra. Mendizalea eta kirolaria ere bada Ugartetxea, eta Hiru Haundiak izan ditu urrian helburu. Entrenatuta dator bihar laugarrena igotzeko. Amuriza ere sasoi betean dago, aitortu duenez, besteak beste, Berriz egunkari-ko eguneroko artikulua idaztea bertso entrenamendurako ariketa aproposa baita.

Azken asteotan zuen inguruan gertatzen denak eragina izango du zuengan finalean begira... Zelan lortzen duzue presioa gainditu eta ohol-tzan gozatzea?

Beñat Ugartetxea: Behin txapelketan sartuta, gura barik ere bertsoa izaten dut momentu oro buruan. Bi hilabeteotan horrela nabil. Gura barik ere, denari ateratzen diozu errima, edozein gertakari entzun eta gai horri buruz zer esango zenukeen pentsatzen duzu. Niri asko eragiten diit txapelketak; plazara trankil joaten naiz, baina txapelketara ez. Bederatzigarren sailkatu naiz azken txapelketetan, eta orain, finalera sartuta, presio handiagoa nabari dut.

Miren Amuriza: Beñatek dioen moduan, hasten dene-tik daukazu txapelketa buruan. Baina, saioko astean, buruan ezezik gorputzean ere igartzen dut. Formula idealik ez dago, baina ahalik eta martxarik normalenean jarraitzeak laguntzen du. Finalean gertatzen dena gertatzen dela ere, bizitzan beste helduleku batzuk daukazula jakiteak lasaitzen zaitu.

B.U.: Ni, berez, oso jendezalea naiz, baina aste honetan, batez ere, nire bakardade momentuak bilatu ditut finala orduko. Txapelketa ez balego ez nuke hori egingo. Bihar goizean ere, kirol apur bat egin, goiz bazkaldu, eta beharbada siestatxo bat egitea izango da nire plana.

M.A.: Ekidinezina da finalera begira urduritasuna sentitzea, baina gakoa da nerbioak gestionatzen jakitea: urduritasun hori zure burua esprimitu eta duzun onena emateko erabiltzea.

B.U.: Gogoan dut Euskal Herriko azken txapelketan gertatu zitzaidana; trankil joan arren, oholtzara igo eta zuri geratu nintzen. Horren arantza barruan daukat oraindik.

Zelan ikusten duzue finalera ailegatu den zortzikotea?

B.U.: Talde polita da, eta ez dago faborito argirik... Zortzitik zazpi lehenago ere finalean egondakoak gara, eta dugun onena ematera goaz bihar. Nire kasuan, finalaurrekoa irabazi izanak morala eman dit.

“**Txapelketan sartuta, gura barik ere bertsoa izaten dut momentu oro buruan**”

“**Ekidinezina da urduritasuna; gakoa da nerbioak gestionatzen jakitea**”



Xabier Amurizak jantziko dio txapela zapatuko irabazleari

Bertsogintzari lotuta 51 urtez egindako lana eskertuko diote Amurizari

Xabier Amurizak (Zornotza, 1941) jantziko dio 2016ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazleari txapela. Bertsogintzari lotuta urteetan egin duen lana eskertuko dio Bizkaiko Bertsosale Elkartean, horrela, Xabier Amurizari. Maiatzean, plazetako bertsogintzatik erretiroa hartuko zuela iragarri zuen Amurizak, eta euskaltzale eta lagunek 51 urtean egindako ibilbidea eskertzeko, egitarau oparoa antolatu zuten.

Bizkaiko Txapelketako talde antolatzaileak azpimarratu du, “bertso munduko erreferente handia” dela Amuriza, “bai bertsolari moduan, txapeldun ere izan delako, baita bestelako jardunetan egindako behar-gatik ere”.

2016ko Bizkaiko bertsolari txapeldunak, beraz, “bertsolaritzari iraultza ekarri zion” eta “bertsolaritza modernoaren figura nabarmenetako bat” izan den zornotzararen eskutik jasoko du bihar txapela.

Bizkaiko Bertso Txapelketako biharko finalean bertsotan jardungo diren Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea ezezik, Xabier Amuriza, Maite Berriozabal berriztarra eta Amaia Ugalde elorriarra ere igoko dira Bilboko Miribilla aretoko oholtzara. Bizkaiko Bertsosale elkartearen gai-jartzaile taldeko kideak dira Berriozabal eta Ugalde, eta bertsolariei kanturako gaiak ematen eta aurkezpen lanak egiten arituko dira bihar arratsaldean.

Ugalde eta Berriozabal bezala, urte birik behin egiten den Bizkaiko Bertsolari Txapelketa antolatzeko, hainbat bertsosale jarduten dira lan boluntarioan. Tartean, baita Durangaldeko hainbat lagun ere.

Lau lantaldetan

Bizkaiko Bertsosale Elkartearen Durangoko egoitzan, lau lantaldetan jarduten dira txapelketa antolatzen. Finalean ohol-tzan egongo diren Berriozabal eta Ugaldegaz, txapelketarako gaiak pentsatzen ibili dira, esaterako, Itxaro Juaristi eta Maider Arizmendiarrira gai-jartzaile taldean. Baita, Ione Narbaiza eta Itsaso Gangoitia-gaz batera, komunikazioaz arduratzen den taldean ere.



“
*Aitaren eskutik
Mirenek jasoko
balu txapela, bera
beste poztuko
nintzateke*”

“
*Barru-barrutik
desio dut argazki
hori; nire bertso
eta bizi ibilbideko
ziklo berri bat
zabaltzeko*”



M.A.: Finaleko argazkian lau neska eta lau mutil mantentzeaz gainera, belaunaldi aldaketa bat ere ikusten da, eta hori gauza ederra da entzuleentzat ere.

Imajinatzen duzue zuen burua Xabier Amurizaren eskutik txapela jasotzen?

B.U.: Txapela neure buruan ikustea zail ikusten dut. Aitaren eskutik Mirenek jasoko balu, bera beste poztuko nintzateke. Historikoa litzateke: hori behin gertatu daiteke, eta orain da.

M.A.: Barru-barrutik desio dut argazki hori, bai nire bertso ibil-

bidean eta baita neure bizi ibilbidean ere kapitulu bat zarratzea eta beste bat zabaltzea izango litzatekeelako. Bakean eta bare nago, eta lasaitasun horretatik gura dut finalean jardun.

Ez duzue lehenengo aldia final batean. Aurreko finalen zer oroitzapen duzue?

B.U.: 2010eko finalean gozatu izanaren akordua daukat. Pisua beste batzuek zeramaten. Tartean, Mirenek, Euskal Herriko final ona eginda heldu baitzen.

M.A.: Hogei urtegar izan zen hori. Handik bi urtera final eskasa

egin nuen, eta bi urte geroago ez nintzen finalean sartu ere egin. Ez da kasualitatea hori gertatu izana; 18 urtegar kantatu nuen Bizkaikoan lehenengoz, 19gaz Euskal Herrikoan, 20gaz Bizkaiko finalean paper ona egin... Eta ni ohartu barik, ez zegokidan leku batean nengoen, ez zegozkidan plaza klase batzuk egiten... Neurria eman gura, eta ezinean ibili nintzen. Duela bi urteko Bizkaiko finaletik kanpo gertatu nintzenean hasi zen niretzat aurtengo txapelketa. Aurtengoa ziklo berri baten hasiera izango dela uste dut, eta gogotsu nago.

B.U.: Euskal Herrikoan goia jo zuenean, hurrengo saioetan ere horraino heltzea exijitzen zitzaien Mireni. Ez da erraza hain gazterik zure burua hor ikustea.

M.A.: Zure oinaren neurria baino handiagoak diren zapatekin ibiltzearen modukoa da: ez dago kizu hori, ez zabiltza eroso.

Plazarik plaza gura beste ibiltzeko aukera daukazue txapelketatik kanpo ere?

B.U.: Bai, nahiz eta aurtengo neuk murriztu dudana saio kopurua. Izan ere, urrian Hiru Haundiak egin gura izan dut, eta horretara ibili naiz gehiago. Lehen, eskaintzen zidaten guztiari esaten nion baietz, pentsatu barik, baina orain bi alabaren aita ere banaiz, eta neurria hartu diot.

M.A.: Beñatenaren kontrakoa bizi izan dut nik; bizitzako beste fase batzuetan gehiago neurtu ditut saioak, eta aspaldi honetan, etorri diren gehienak egin ditut. Bertsoan egiteko gogoia eta aukera eduki dut, eta dei asko ere etorri dira. Aurtengo udan inoizko saiorik gehien egin dut.

Txapelketara begira ere inportantea da plazetako entrenamendu hori?

B.U.: Bageneki entrenatzeko zein den metodo ona! Nire kasuan, adibidez, txapelketa prestatzeko inoizko gutxien ibili naiz entrenatzen. Lehen, txapelketa sasoiari, astean bi-hiru entrenamendu egiten nituen, eta oraingoan astean behin elkartu naiz Etxahun Lekuegar. Eguaztentean elkartzen gara Paya, Estiballes, Lekue eta laurok. Aldiz, egia da sekula baino gehiago irakurri dudala ere, errimak gehiago erreparatu ditudala... Orain, gehiago arduratzen nau gaiari heltzeko moduak, ideiak lantzeko, zeresana izateak... Iruzkina egiten dizkiogu elkarri, eta oso baliagarria da besteek zure

bertsokerari buruz diotenetik hobetzen saiatzea.

M.A.: Ni beti izan naiz entrenamendua paperean egitekoa. Orain bi urteko txapelketa aurreko udan errimak egiten ibili nintzen, obsesionatuta ia. Baina plazan ez nenbilen ondo bertsoan. Aurtengo udan plazan kantatu, irakurri eta pentsatu egin dut, ez hainbeste teknika landu. Bestalde, egunero-egunero Berriarako idazten dudana artikulua lantzea oso ondo datorkit lantzeko ideologikoa egiteko. Bestelako entrenamenduekin ere irail erdi partetik nabil, Durangaldeko bertso eskolakoekin.

Osasuntsu ikusten duzue ohiko saio horien zirkuitua?

B.U.: Bai, gero eta bertsolari eta saio gehiago dago.

A.M.: Askok dibertsifikatu da gainera, lekuei, gaiei eta formatuei dagokienez. Eta gauza interesgarriak sortzen dira.

Bestearen bertsokeratik zer duzue gustuko?

B.U.: Mireni maila ikusten diot, eta berea ematen badu, txapelduna izateko aukerak daukaketako bat dela uste dut.

M.A.: Alde batetik, bertsolari moduan, beragaz taldean jardutea eskertzen den pertsona da Beñat. Freskotasun handikoa. Badakit jendeak ere estimatu izan duela txapelketetako saioetan Beñatek orain arte umoreari helduta hartu duen rola. Umoretik oso ona da, eta berak ere badaki hori, baina apustua egin du beste aurpegi batzuk erakusteko. Ondo atera zaio apustua, eta uste dut biharko finalean ere bertsolari osoago hori entzungo dugula.



Bertsolariek eta Xabier Amurizak martitzenean aurkeztu zuten biharko finala.

Epaille taldean ere badago Durangaldeko bertsozaleen presentziarik; bertsolarien lana neurtzen ibili dira Alaitz Etxanobe, Itxaro Juaristi, Jon Jaio eta Miriam Juaristi.

Asier Ibaibarriaga, Ione Narbaiza eta Maider Arizmendiarieta, bestalde, *Antolakuntza* taldean dabilta.

Urte guztian zehar Bizkaiko Bertsozale elkartearen lanean

ibiltzen direnak, bertsozale denak, apirilean Txapelketa abiatu zuten 56 bertsolariak, euskaltzale eta kulturzaleak... asko dira bihar 17:30ean hasiko den finalera begira daudenak.

> DANTZA Aimar Esteban
L'Atelier Dantza Eskolako taldeko kideek *El Cascanueces* balletaren emanaldia egingo dute martitzen eta eguaztenean, San Agustin Kulturgunean. Ehun bat dantzari igoko dira oholza gainera ballet ikuskizun hau eszenaratzerako. Bi saioak arratsaldeko zazpitan hasiko dira.

Oiane Azkonizagak zuzenduko du ballet obra klasiko hau. Azkonizagak orain dela hamar urte jarri zuen martxan L'Atelier Dantza Eskola, eta maila honetako ikuskizuna aurrera eramaten duten hirugarren aldia izango da. "Gabonetako ikuskizun klasiko hau herriko dantza eskolako ikasleekin egitea ohorea da", adierazi du.

Hoffmanen ipuinean oinarritzen den Tchaikovskyren obra honek neba-arrebak ditu protagonista nagusiak. Neskak soldadu forma daukan inxtaur-hauskailu bat jasotzen du operari moduan, eta gau berean, jostailu guztiek bizia hartzen dute. "Ikuslea mundu magiko batera eramaten duen obra da".

'El Cascanueces' ballet emanaldia L'Atelier-en eskutik

Abenduaren 20an eta 21ean eszenaratuko dute Tchaikovskyren lana



L'Atelier Dantza Eskolako kideak 'El Cascanueces' obra klasikoa prestatzen ari dira.

L'Atelier dantza eskolako kideak denbora luzez egon dira lanean. "Udatik gabiltza presta-

tzen, eta esfortzu eta ilusio handia jarri ditugu obra honetan. Merezi izango du San Agusti-

nera hurbiltzea", dio eskolako zuzendariak. Sarrerak L'Atelier Dantza Eskolan daude salgai.

GEURE DURANGALDEA

JON IRAZABAL

Gerediagako kidea



Durango & museoa

Bidaiatzean beste lurraldeetako museoak bisitatzea da bidariaren ohitura. Bidaiariek ez dute turistez. Turista gai da Durangoko turismo bulegoan kultur ondareari buruzko informazioa eskatu eta irtetean Kurutziazako kurutzeari begiratu barik joateko. Ez duzue sinesten? Egin proba...

Durangoko museoaz gain Durangaldean ia ez dugu historia-ondare arloko museorik. Elorrioren Berriotxoari eskainitakoa eta Berrizen Margarita Maturanaren bizitzari eta lanari buruzkoa. Hortik kanpo, Astolako Kartzelan, Urkiolako Santutegian eta Garaiko Moimotion dauden erakusketak.

Durangoko museoa oroimen historiak biltzen duen espaziotzat ikusten dut. Hainbat bider adierazi dut/dugu ez duela bere funtzioa betetzen, eta astindu baten beharra duela. Museo hori Durangoko uria ezagutzeko posible egingo duen tresna bat izan behar litzateke, eta Durangaldera ere zabaldu beharko litzateke. Durango barik ezin da ulertu Durangaldea eta Durangaldea ere ez Durango barik.

Orain hilabete batzuk zuzendari berria izendatu dute, Garazi Arrizabalaga. Ikusten den bezala, ilusio handiarekin hartu du bere zeregina, eta pozgarria da hori. Ilusio horrek laguntza, babesa eta elkartzasuna behar ditu, gure inguruak behar duen museoa lor dezan. Nola?

Adibidez, Durangaldeko alkate, zinegotzi eta herritarrak bertaratuz, gure etxeetan daukagun objektuak —iraganarekin lotura dutenak— jendearen gozamenarako gordailutze modura utziz... Ekimen txiki askoren bidez, hobetu dezagun San Agustineko Museoa. Dirua zutabetariko bat da, baina ez bakarrik. Animo, Garazi, esku bat baino gehiago dituzu laguntzeko prest.

Dantza garaikidea gozagai, bihar, Berrizen

'El cielo ahora' emanaldia izango da urteko azkena

> DANTZA I.E.

Bihar, 20:00etan hasiko den dantza emanaldiagaz emango du Berrizko Kultur Etxeak ikasturteko lehen hiruhileko programazioa amaitutzat. *El cielo ahora* obra eskainiko dute Natalia de Miguel, Pilar Andres, Olatz de Andres eta Isaak Erdoiza dantzariak. Abadiñarra da Erdoiza dantzaria.

Eragiten diguten gaiez jarduteko gizakiok sorturiko sistemak direla kontuan hartuta, mitoak gaurkotzeko aukerei buruz dihardu *El cielo ahora* obrak. Ikuskizunaren sortzaileren berbetan, "koreografia honek mugitzeko aukeragaz eta ezintasunagaz jokatzeko du".

Eskultura eta margolanen bitartez, Perseoren mitoa irudikatzen dute: begiradaren bitartez jendea harri bihurtzeko daukan gaitasunagatik Ateneak Medusa hiltzera bidaltzen duen Perseorena, hain zuzen ere.

Eskultura eta margolanen bitartez, Perseoren mitoa irudikatzen dute 'El cielo ahora' ikuskizunean

Mito klasikoek gaur egungo gizarte eta harremanekin duten lotura erakusten du dantza ikuskizunak.

Kulunkaren obra berria ikusteko bi aukera, asteburuan, eskualdean

> ANTZERKIA I.E.

Testurik bako *André eta Dorine* eta *Solitudes* antzezlanen arrakastaren ostean, ahotsak presentzia nabarmena daukan obra berria dakar Kulunka Teatroa taldeak asteburuan, Durangaldera. Gaur, 21:00etan, Zornotza Aretoan; eta domekan, 19:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko dute *Taxidermia de un gorrión* lan berria.

Edith Piaf abeslari paristarra protagonista duen obra da Kulunka taldearen antzezlan berria. *André eta Dorine* eta *Solitudes* lanek bezala, barne mundura bidaia bat proposatzen du antzezlan honek ere. Gai mamitsuak dira *Taxider-*

mia de un gorrión lanekoak: mitoak sortzearen beharraz edota zahartzaroz dihardu, adibidez.

André eta Dorine obran ere oholza gainean zegoen Garbiñe Insaustik antzezten du *Taxidermia de un gorrión* honetan Piafen paper protagonista, eta aho zabalik utziko du publikoa bere zuzeneko ahotsagaz.

Lola Casamayor eta Alberto Huici aktoreek dihardute Insaustigaz oholztan. Hain zuzen ere, Casamayorrek antzezten duen kazetariaren eta abeslariaren arteko elkarrizketa bat da antzezlanaren ardatza.

Ozkar Galanen testuan oinarrituta eta Fernando Sotoren zuzendaritzapean gauzatu dute *Taxidermia de un gorrión*.

Taxidermia de un gorrión
Teatro Kulunka

Abenduaren 18an, 19:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

ABENDUAK 16
20:00etan
BERTSOZ BERTSO
INDARKERIA
MATXISTEI AURRE

ABENDUAK 17
19:00etan
ORION CHILD +
DARKBLAZERS +
EROZS
KONTZERTUA

ABENDUAK 22
20:00etan
LABORATTEGHIA
KONTZERTUA

GABONAK!

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU

 anboto

Une oro, egunero, hileru, urtero...gero eta jende gehiago igotzen da.
EROSKI Hipermerkatuetako karrora.
EROSKI Hipermerkatuak, zurekin.

aurten ere aurreztu gurekin

 **EROSKI**
Abadiño zurekin

ABENDUAK 17

9:30 Futbito txiki txapelketa frontoian.

ABENDUAK 18

11:00 Eskolarteko nesken pala txapelketa frontoian.

ABENDUAK 24

18:30 Olentzero eta Mari Domingi plazan.
OHARRA: Olentzero eta Mari Domingirentzat gutunak jasoko dira: liburutegian, eskolan eta udaletxeko buzoian.

ABENDUAK 26 / 27

11:30-13:30 // 16:30-19:30
Haur parkea frontoian: puzgarriak...

ABENDUAK 27

19:00 Hitzaldia: Refugiados/ refugiadas, la vergüenza de Europa. Kontzejuzarren.

ABENDUAK 30

Gabon kantak baserriz baserri abesten.

17:00 Zinema Kultur Etxean.

URTARRILAK 3

19:00 Hitzaldia: Oihana Kortazar mendi korrikalaria Kontzejuzarren.

URTARRILAK 7

09:00 Frontenis maratokia (bikoteka) frontoian.

URTARRILAK 8

16:00 Zinema Kultur Etxean.

URTARRILAK 14

11:00 Euskaraz egiteko motibazio tailerra. Kontzejuzarren.

MAÑARIA**ABENDUAK 22**

18:00 Ipuin kontalaria liburutegian. 8 urtetik beherako umeak nagusi batez etorri beharko dira.

19:00 Autokonpostaje ikastaroa.

ABENDUAK 23

19:30 Kantu pote. Herriko Tabernatik.

URTARRILAK 5

18:30 Erregeak plazara helduko dira. Nahi izanez gero, oparia eskura emango dute. Oparia (bakarra) horrela jaso gura duenak, abadeetxeko saloira eraman beharko du bere eskutitza. Saloia 17:00etatik 17:45era arte egongo da zabalik.

Abenduan eta urtarrilean zehar: **Sahararen aldeko XIII. euskal karabana.** Piztu itxaropena. Elikagaiak (lekaleak, olioak, azukrea, pasta, atuna eta sardinak) eta higie produktua (konpresak eta nagusientzako pixoihalak) jasoko dira herrian, urtarrilaren 20ra arte.

OTXANDIO**ABENDUAK 17**

19:00 Antzerki emanaldia "Frankoren bilobarri gutuna". Gimnasioan.

ABENDUAK 23

Argitxo eta Mari Domingi.

ABENDUAK 24

Olentzerogaz herriko txistulari eta Oihandi abesbatzak herriko kaleetatik zehar gabon kantuak abestuko dituzte, kontseilupean amaituko dute. Ondoren, gure herriko ohiturak bizirik mantenduz, ardo beroa eta gaztaina erreak "Pasealeku" jubilatuko elkartearen txokoaan.

ABENDUAK 30

"Musikabirintoa" antzezlana.

ABENDUAK 31

Mirugain: urteko azken irteera Arangio mendira (Gabon Zahar)

ZALDIBAR**ABENDUAK 24
BADATZ MARI DOMINGI
ETA OLENTZERO!**

12:00 Herrera Olazar kalean, gero danok Zaldia plazara kalejiran.

12:30 Ongi etorri jaialditxoak.

**ABENDUAK 26
SAN ESTEBAN EGUNA**

18:30 eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa eta gaztaina erreak.

ABENDUAK 29 / 30

11:00-13:00 / 16:30-19:30
Umeen gabonetako parkea.

ABENDUAK 31

16:30 XIX. Olazar pilota txapelketako finalak.

17:00 III. San Silvestre lasterketa.

URTARRILAK 1

Igoera Santamarinazarrera
10:30 talde argazkia eta hamarretakoa.

URTARRILAK 5

Erregeen desfilea
18:30 Ibilbidea: Olazar, Euskal Herria, Arantzamendi, Euskal Herria eta udaletxeko plaza.

ZORNOTZA**ABENDUAK 17**

'Nun ikusiot zure aurpegixe' gala berezia. Zelaia Zentroan.

Mungiako **Olentzeroren etxera** txango berezia.

20:00 Udabarri Dantza Taldearen **50. urteurrenaren ekitaldi nagusia.** Amorebieta IV Pilotalekuan.

ABENDUAK 18

12:30 Gabon kantuak herriko kaleetan herriko koru eta txistularien eskutik.

13:30 Kalbarion batuko dira **Mesias Sarritan** abesteko.

ABENDUAK 23

21:00 Zubiatur Musika Eskolaren **Gabonetako kontzertua.** Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 26/30

Goizez, Gabonetan Jai umeentzako programa. Puzgarriak, tailerrak, musika eta jolasak. Sarrera hiru euro eguneko. 12 euro bost eguneko bonua. Zelaia Zentroko pilotalekuan

ABENDUAK 31

09:00 Belatxikietara irteera urteari agur esateko. Zelaia parkeko iturritik.

ZALDIBAR

GABON OPORRAK

Abenduak 24**BADATZ MARI DOMINGI ETA OLENTZERO!!!**

12:00etan HARRERA Olazar kalean, gero danok Zaldia plazara kalejiran.

12:30etan ONGI ETORRI jaialditxoak.

Abenduak 26**SAN ESTEBAN EGUNA**

18:30etik aurrera eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa eta gaztaina erreak.

Abenduak 29 eta 30**UMEEN GABONETAKO PARKEA**

11:00-13:00 eta **16:30-19:30**

Abenduak 31

16:30ean XIX. Olazar pilota txapelketako finalak.

17:00etan III. San Silvestre lasterketa.

Urtarrilak 1**IGOERA SANTAMARINAZARRERA**

10:30ean talde argazkia eta hamarretakoa.

Urtarrilak 5**ERREGEEN DESFILEA**

18:30ean hasita, ibilbidea Olazar, Euskal Herria, Arantzamendi, Euskal Herria eta udaletxeko plaza.





Opari original eta erabilgarriak

Heldu dira gabonak, eta, betiko legez, opari zerrenda luzea duzu erosteko oraindik. Etxetik gertu, buruari ezker-eskuin eraginda, hainbat dendatan aukerako opariak dituzu eskura. Baina, nola erabaki bakoitzaren gustuko opari hori? Adin eta gustuen arabera, aukera zabal-zabala duzu. Edertasun tratamendu bat, egurrez egindako umeentzako jolas bat, bitxi original bat, gonbidatu zaituzten etxe horretara eramateko turroi edo gozo artisauak... Gogoratu, garrantzitsuena opari hori ilusioz ematea dela!

Magdalena Gozotegia



turroi
eta gozo
artisauak



Fray Juan Zumarraga, 3
DURANGO
Tel.: 946 810 929

Ana Camarero

Edertasunerako tratamenduak
eta aholkularitza



produktu
sortak

- Aurpegiko larruzalaren garbiketa ·
- Aurpegi-tratamendua ·
- Masaje lasaigarriak ·
- Betileen luzapenak ·



opari
txartelak

Goienkalea, 16-1. esk.
DURANGO
Tel.: 946 817 380
Mug.: 639 375 474

Maitte

Lurrindegia eta Bitrikerideada



Barrenkalea, 22
DURANGO
Tel.: 946 570 917

AZ ideiak

Eskulan tailerrak, materialak,
jostailu didaktikoak



Alluitz, 7
DURANGO
Tel.: 688 72 64 24



Santa Ana plaza
DURANGO
Tel.: 946 550 455
www.atxartemendikodenda.com

> MERKATU TXIKIA A. Basauri
Arropa, oinetakoak, liburuak, jostailuak, kuadroak, gitarra, telebista edota 60ko hamarkadako edari-altzaria. Herritarrek emandako makina bat objektu aurkitu daitezke Durangoko gabonetako merkatu txikian. Artekalen zabaldu dute, aurten, zortzi emakumeren ekimenez sortutako gabon egunen bezperaren merkatua, eta dagoeneko 13 urte bete ditu. Halaxe gogoratu du Amelia Santa Cruzek. Beragaz batera, Teresa Garcia, Puritxu Muruetagoiena eta Arantxa Bastida daude elkartasun ekimen honen atzean.

Telebista 25 euroan, gitarra 50 euroan edo liburu bi euro batean. Solidaritatez bildutako erosketak egiteko aukera ematen du merkatu honek. Azaroaren 21ean ireki zuten, eta herritarrengandik jasotako erantzun ona nabarmendu dute bultzatzaileek, eta beraien esker ona erakutsi gura diete guztiei. Baita merkatua egin ahal izateko zerbait eman dien guztiei ere. “Egia esan, erantzuna oso ona da hasieratik. Merkatua ipiniko dela dakiten momentuan etortzen da jendea. Eta ezer ematerik ez duten askok diru-ekarpena egiten dute”, azaldu du Puritxu Muruetagoienak.

Elkartasunez bildutako erosketak egiteko aukera dago Artekalen

Gabonetako merkatu txikia antolatu dute herritarrek emandakoekin, 13. urtez



Askotariko objektuak aurkitu daitezke domekan atek itxiko dituen Durangoko merkatu txikian.

Azaroaren 21ean zabaldu zuten gabonetako merkatu txikia, eta, dagoeneko, 6.000 eurotik gora batu dituzte. Hala ere, oraindik gehiago batzea da

asmoa. Izan ere, ahal den guztia saltzea da helburua. Liburuak, jantziak, panpinak, autoetarako umeentzako aulkiak... aukera zabala da, eta egun gutxi gera-

tzen dira aurretik. Domekan itxiko dute. Azken egunak direla-eta prezioak are gehiago jaitsi dituzte, gehiago saltzeko, Santa Cruzek nabarmendu lez. Aste-

lehenetik domekara, 10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara dago zabalik merkatua.

Dirua JAEDi emango diote Batutako dirua JAED elkarteari emango diote, iaz egin zuten moduan. “Aurretik Bateginez GKEari ere ematen genion zati bat, baina, desagertu zenetik JAEDera bideratzen dugu dena”, dio Muruetagoienak.

“Merkatua ipiniko dela dakiten momentuan etortzen da jendea”

13 urte pasatu dira lehenengo gabonetako merkatua antolatu zutela. “Kafe baten bueltan sortu zen guztia. Guk ere zerbait egin genezakeela-eta, ganbaretan begiratzen hasi ginen. Orduan zortzi emakume ginen; orain lau gara”, dio Santa Cruzek. “Urtero utzi digute lokalen bat eta eskertzekoa da benetan”, gaineratu du. Montebideo kaleko lokal batean egin zuten lehenengo merkatua, gero Foto Sol zaharra zen tokian, eta azken hiru urteetan Barrenkalen; hiru toki desberdinetan. Aurten Artekalen utzi diete tokia.

*Neurri handietan
espezializatutako denda*

- Aholkularitza pertsonalizatua ·
- Denboraldi berria lentzerian eta pijametan ·
- Kopak: A / B / C / D / E / F / G ·

Magdalena lenceria

Ermodo kalea, 27 - Tel.: 94 402 40 43 - DURANGO



• on egin •

ALBERDI HARATEGIAK ESKAINITAKO ERREZETA

Bakailaoz barrubetetako penkak txapiro saltzagaz



Beñat Alberdi

OSAGIAK 8 LAGUNENTZAT

- 16 Azelga penkak (tamaina ertaina)
- Bakailaoa. 200 gr.
- Esnea litro 1
- Gurina. 150 gr.
- Irina. 150 gr
- Tipula. 1 kg.
- Piper berdea. 300 gr.
- Azenarioa. 300 gr
- Txapiro tinta (bote txiki bat)
- Gatza
- 4 Arrautza

EGITEKO MODUA

• Lehenbizi bexamela egingo dugu, gurina eta irina nahastuz eta esnea gehituz. Prest dagoenean, bakailaoa txikituta gehituko diogu, ondo nahastuz. Gero, hozten utzi.

• Txapiro saltza egiteari ekingo diogu gero. Horretarako, tipula, azenarioa eta piper berdea sutan jarri, eta dena ondo erregosita dagoenean, birrindu egngog dugu. Ostean, tinta nahastu.

• Bexamela hotz dagoenean, penka baten gainean isuriko dugu mahuka bategaz, eta beste penka bategaz estali.

• Ondoren, barrubetetako penkak arrautza-irinetan pasatuko ditugu. Bukatzeko, penkei saltza beltza gainetik bota, eta kito.

On egin!

SALTSAN KATERIN-EK ESKAINITAKO ERREZETA

Karakolak Saltsan erara

OSAGIAK 4 LAGUNENTZAT

- Ziento bat karakol. zientoka saltzen dira
- 6 tipula gorri.
- Berakatz. 4 atal.
- 12 piper txorizero.
- Pipermin pare bat.
- Etxean egindako tomate saltza. 1/4 litro
- Brandy kopatxo bat
- Ogi zati bat saltza sendotzeko.
- Okela salda, 2 litro
- Urdaiazpiko iberikoa, 100 gr.
- Urdai zati bat, 10 gr.
- Okela txikitua, 100 gr.
- Txorizo bat.

EGITEKO MODUA

• Karakolak garbi erosi daitezke edo norberak garbitu ditzake, uragaz eta gatzagaz.

• Karakolak prest daudenean, egosi barazkiekin eta gatzagaz. Utzi irakiten 40 bat minutu.

• Aparte, saltza jarriko dugu martxan: tipula eta berakatz. suezitzen jarri, eta barazkiak biguntzen direnean piper txorizeroa, pipermina eta tomatea gehituko ditugu. Ogiagaz eta brandiagaz flanbeatu, eta, azkenean, saldagaz busti eta egosten itxi, ordubete su txikian. Txino batetik pasatuta osagai guztiak txikitu, eta gatzaz puntu-puntu ipini.

• Eta, bukatzeko, lapiko batean urdaiazpikoa, urdaia, txorizoa eta okela txikitua ipini, ondo zatituta. Su txikian kozinatu, karakolak gehitu, eta, azkenik, saltza gehitu. 40 minutuan egosten itxi, zaporo guztiak nahasi daitezzen.

Plater ikusgarria prestatu duguna!
On egin!



Iñaki Uribe





Frai Juan Zumarraga, 15 DURANGO

SIMPLY supermerkatua DURANGO

Gudari kalea, 49 ZORNOTZA

San Juan kalea, 13 EIBAR

afede



Gure Jostailu Denda

19,95€**ZEIN ANIMALIA NAIZ**
ASMATU BESTE PARTAIDEEN
LAGUNTZAZ KOPETAN
DUZUN ANIMALIA**14,99€****ZEIN DA ZEIN?**
ASMATU AURKARIAREN
ANIMALIA-TXARTELA**37,99€****TABLET ADITUA**
TABLET ADITUA HIRU
HIZKUNTZATAN: EUSKARA /
INGELES / GAZTELANIA,
80 JARDUERA BAINO
GEHIAGO**9,50€****NIRE LEHEN HITZAK**
AHOSKATZEKO 78 PIEZA,
PUZZLEAK OSATUZ
ANIMALIA ETA OBJEKUEN
IZENAK IKASI**ESKLUSIBOA****21,50€****PARTY & CO JUNIOR
EUSKARAZ**
FROGA DIBERTITZEKO: MARRAZTU,
KANTU-MARMARREAN ARITU,
DEFINIZIOAK, GALDERAK
ETA MIMIKA.**9,50€****BOKALAK IKASIKO DITUT**
LETRAK IRUDIEKIN LOTU
BEHAR DIRA. MAIUSKULAK
ETA MINUSKULAK BEREIZTEN
IKASIKO DUZU**19,95€****HITZAK OSATU**
HITZEN ULERMEN FONETIKO
ETA GRAFIKOA BULTZATZEN
DU. 9 LAMINA 54 HITZEKIN**ESKLUSIBOA****4,99€****LEHENENGO HITZAK**
TXARTEL
DIBERTIGARRI ETA
ERROTULAGAILU
EZABAGARRIAREKIN,
TXIKIENAK JOLASTEN DIREN
BITARTEAN IKASTEKO**21,95€****KONEKTORE
HEZIGARRIA**
ESKOLAKO
LEHENENGO GAIEI
BURUZKO 352 GALDERA**1-10 ZENBATZEN
IKASIKO DUT**
IKASIKO DUT ZENBAKIAK
ETA PIEZA KOPURUAK
LOTU ETA ZENBAKIEN
ORDENA JARTZEN**9,50€** Anboto
Komunikabideak

@anboto

@anbotokomunikabideak

**Anbotoren lagunen artean egingo dugu JOSTAILUEN ZOZKETA
abenduaren 19an. Izan zaitetz Anbotoren lagun!**

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Leire Milikua Larramendi | Arkitektoa eta Unibertsitate Espezializatua Agroekologian | Abadiño, 1985

► **BERBAZ** Aitziber Basauri
 ‘Landa eremua EAEn: Egungo argazkia eta etorkizuneko aukerak’ aurkeztu du Durango-ko Azokan gazte abadiñarrak. Orain, erabilgarria den zenbat lur dagoen, hor zer produzitu daitekeen eta sortu daitezkeen lanpostuak aztertzen ari da Anbientalia 21 ingurumen aholkularitzagaz elkarlanean.

Zein da gaur egungo landa eremuaren argazkia EAEn?

Askotan, eskutik doazen ezau-garri bi nabarmendu daitezke: landa eremu azpierzabilia da, eta hiri-nukleoen eragin zuzena du. Hartara, hiriguneen presioak itota daude batzuk; amortizatu-ta daude, eta ez dira eskuragarriak, batez ere espekulazioaren eraginez. Deskonektatuta geratzen diren landa eremuak ere badaude; urrun, isolatuta geratzen direnak. Egia da oso gutxi direla, komunikazio bideak oso garatuta daudelako: biztanleria galtzen doazen herri txikiak dira, lurrak lantze-ari utzi diote, eta ez dira erakar-garriak hiri inguruetako jendearentzat. Gaur egun oso zaila da hiria eta landa bereiztea.

Hiriguneen eraginagatik?

Bai. Landa eremu oso gutxi daude tamainako herrigune batetik kotxean 20 minutu baino gehiagora daudenak. Aurretik, landatik hirirako exodoa eman zen. Hiriak betetzen joan dira, bizi-kalitatea igo da, eta, orain, kontrako mugimendua bizi dugu. Landa gunea baloratzen dugu bizitoki lez, eta hori espekulazioaren arazoietariko bat ere bada. Estatistikoki diote landa eremua berpizten ari dela, baina gezurra da, herritarrek hiriko bizitza daramatelako. Lo egiten dute landa gunean. Esan behar da, lurraldean ez ezik bizi ereduaren ere eragin duela hiriak. Hiriko hamar urteko umearen bizi ikuspegia eta herri txiki bateko umearena ez dira hain desberdinak. Egun ez da existitzen orain 50 urte zegoen hiri eta landaren arteko muga.

Desberdina da Durangaldean?

Joera berdina da. Hala ere, badago desberdintasunik. Itxura batean, oso ondo dago landa eremua, ez da utzikeria hori ikusten. Baina, apur bat hazkatuz gero, erraz ikusi daiteke azpierzabilitako eremua dela. Ortuak, landak, basoak... zeuden lehen. Orain, hainbat baserrik pinua dute etxe kontraraino —60ko hamarkadan lanaldi partziale-

“Lurraldea ulertu eta horren baliabideak erabiltzetik datoz etorkizunerako aukerak”

‘Landa eremua EAEn: Egungo argazkia eta etorkizuneko aukerak’ liburua idatzi du



ko nekazaritza hedatu zen—. Azpierzabileraren beste sintoma bat da hori, lurrok beste bokazio bat dutelako; gainera, pinuak ez du garai bateko etekinik ematen. Dena den, badago ilusioa egiten duen beste ezaugarri bat: nekazari berriek hasi dute jarduera, gehienak ekologikoan.

Horrek argazkia alda dezake?

Dinamika positiboa da. Durangaldean altxor txiki bat dugu: kontzientzia hori duen belaunaldi berria, lurraldearekiko berekonekzioa garatzen ari dena. Tamalez, horrek ez du esan gura azpierzabiltako lurren buelta dakarrenik, normalean esku pribatuetan daudelako. Arazo nagusietako bat da lurraren eskuragarritasuna. Higiezinaren espekulazioak sinistarazi digu badugula ez dugun zerbait. Hori desmuntatzea oso gogorra da, eta ulertzekoa da. Horregatik nekazaritzan jardutea erabaki duten gazte gehienak familiako baserri batean hasten dira.

Urteetako pentsakera hankaz gora jartzea esan gura du?

Lurragaz lotutako garapena eman da mendeetan. Baina industrializazioagaz lurrarekiko deskonekzioa eman da. Ho-

“*Altxor txiki bat dugu: lurrarekiko birkonekzioa garatzen ari den belaunaldi berria*”

rrek emandako mundu ikuskeratik lurrarekiko konekzioa bueltatzea gogorra da. Ez luke esangura dena hankaz gora jarri behar. Berez, logika eztaba-daezina da eta.

Zeintzuk dira etorkizunerako aukerak?

Berriz ere gauden lurraldea ulertu eta horren baliabide edo ondasunak erabiltzetik, praktikan jartzetik, datoz etorkizunerako aukerak. Horixe dio logikak. Bihar Europako mugak itxiz gero, gosez hilko ginateteke. Horixe da gerretatik ateratako ikasgairik handienetariko bat: elikadura ziurtatzea, eta Europako herrialde eta hiri moderno askotan egin dute: Genevan, II. Mundu Gerraren ostetik, horixe dute oinarrietako bat, bertako biztanleria bertako produktuekin elikatzea.

Elikadura burujabetzaz ari zara liburuan. Zertan datza?

Eremu publikoek lurralde antolamenduari begiratzeko modu bat da elikadura burujabetza, marko integral bat. Ondasun publikoen subiranotasuna, energia, tokiko elikadura sistematik, emakumeen autonomia, jakintza askea eta gestio kolektiboa batzen dituen aterkia da.

Liburuan muturreko bi egoera azaldu dituzu. Desagrarizazioa bat. Zer esan gura du horrek?

Nekazaritza-ekoizpenaren jaitziera, eta, ondorioz, lanpostuen izango litzateke desagrarizazioa, kanpoarekiko menpekotasuna sortzen duena. Gainera, ingurumenak existitze hutsagatik emandako onurak ere hartu behar dira aintzat: ingurumen zerbitzuak —adibidez, baso batean: paisaia, karbono finkatzea, biodibertsitatea mantentzea...—. Lurraldean oinarritutako kudeaketa aldatuz gero, ondorioak bestelakoak lirateke. Hain gure kontsideratzen ditugun larre berdeak, baliteke sartzak izatea behirik edo ardirik ez badago larretzeko. *Coste de la no agricultura en el Pais Vasco* liburuak datu batzuk jasotzen ditu: abeltzaintza %100ean eta ne-

kazaritza %75ean desagertzeak, urtean, 436,9 milioi euroko kostua ekarriko luke. Lanpostuak %80 dira, baina beste %20a *per se* kontsideratzen ditugun ingurumen zerbitzuak dira. Beste muturra litzateke elikadura burujabetza hautu politiko lez. Tarteko bideak asko dira, baina norabide hori hartu behar-ko genuke.

Agroekologia, kontsumo taldeak, ortu sozialak... gero eta zabalduago daude.

Oso baikorra naiz tokiko ekimenekin, badago kontzientziazio maila bat, eta kontsumoa da ekintza politikorik zuzenena. Hala ere, beldur naiz kapitalak ez ote dituen kapitalizatuko eta edukiz hustuko oso indartsuak diren kontzeptuok. Adibidez, *CocaColak* landa eremuetako emakumeak ahalduntzeko bira bat egingo du.

Zer da agroekologia?

Elikadura burujabetzarako tresna. Agrosistemen iraunkortasuna du helburu, baina arlo sozio-ekonomikoa —lurralde baliabideen erabilera— eta arlo sozio-politikoa —ekoizpen balditzak, botere harremanak— ere aintzat hartuz.

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

PEDAGOGIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119/13

PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

PSE: 57/16

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es
Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

PSE: 63/63

PODOLOGIA

ESTETIKA

OPTIKA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOIA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOIA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

PSE: 148/13

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

PSE: 16/09

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriaren teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoportmetriazentroa.com

PSE: 162/13

ODONTOLOGIA

PSIKOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

PSE: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hartz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

PSE: 112/13

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

PSE: 62/11

Náyade Barrutieta Pajuelo | Ezkurdi futbol klubeko aurrelaria | Zornotza, 1990

Bigarren faseko lehenengo partidua Gabon zahar egunean jokatuko dute, abenduaren 31n.

“Igoera lortzeko taldea badugula uste dut, eta horren bila goaz”

Umetan atezain ibili zen, Eibarri uko egin zion lagunengatik, eta orain golak egiteko makina bat da

> FUTBOLA Joseba Derteano
Goleatzaile peto-petoea da Náyade Barrutieta. Iazko denboraldian 50 sartu zituen, eta aurten 15 daramatza. Bere golei eta taldeko lanari esker, Ezkurdi Bizkaiko igoera fasera sailkatu da bederatzita partidutatik zortzi irabazita.

Igoera fasera sailkatzea helburuen barruan zegoen, baina espero zenuten hain ondo aritzea?

Egia esan, ez genuen espero. Iaz lehen fase ona burutu genuen, partidu dezente irabazita. Aurten antzerako zerbait espero genuen. Defentsa indartu duten jokalariek etorri dira, baina, hala ere, sorpresa bat izan da.

Partidu denak irabazita sailkatzeko aukera izan duzue, baina Deriok 0-2 irabazi zizuen. Erlaxatu egin zineten?

Agian, generaman martxagatik eta, gainera, etxean sendo gabiltzanez, erlaxazio punturen bat egongo zen. Baina, tira, guk beti irabazi gura dugu, eta are gehiago etxean jokatzean.

Igoera fasean talderik indartsuenak batuko dira. Beste existentzia maila bat da, baina sa-

soi betean zaudete. Zer itxaron dezakete Ezkurdiko zaleek erronka horri begira?

Partidu berdinduak izango dira. Lehen fasean talde batzuen eta besteen artean aldeak igarri daitezke. Igoera fasean denek maila handia dute.

Igoeragatik borroka egitea erronka handiegia da?

Gu horren bila goaz, hori argi daukagu. Igoera lortzeko taldea badugula uste dut.

Iazkoak eta aurtengoak batuta, 65 gol daramatza. Goleatzaile izateak errematatzaile ona izatea esan gura du, ala beste bertute batzuk ere behar dira?

Goleatzaile batek errematea izan behar du, jakina, baina ez hori bakarrik. Goleatzaile izateak behar den unean behar den tokian egotea esan gura du. Aukera duzunean baloia barrura joango den konfiantza izatea esan gura du. Azkenean gauza asko dira.

Jenifer Rubio da taldeko beste goleatzaile bat. Hark 50 bat gol daramatza iazko eta aurtengo denboraldien artean. Ondo elkar hartzen duzue?

“**Lagunekin jokatuz futboleant gozatu nahi dut. Horregatik geratu nintzen hemen**”

Bai. Pertsonalki oso hartueman ona daukagu, eta entrenamenduetan ere elkar ondo ulertzen dugu. Hori guztia gero islatu egiten da zelaian.

Zure bertuteetako bat atezainaren aurreko buruz burukoe-tan duzun segurtasuna dela diote.

Bai. Atezainagaz aurrez aurre nagoenean izkin egiten saiatzen naiz. Alde batera edo bestera errematatzeak dudak ditudanean, badakit, izkin egiten asmatzen badut, ate osoa niretzat geratuko dena, eta horretan saiatzen naiz.

Hainbeste gol sartuta, badago bereziki gogoratzen duzuen bat?

Orain bi-hiru partidu, gol bat *txilenaz* sartu nuen Basauritar

taldearen aurka, korner baten ostean. Aurretik hainbat bider saiatu naiz, baina ez zait irten gura nuen moduan. Edo baloia atetik urrun joan da, edo ez dut ondo jo... Partidu horretan barrura joan zen. Zorte apur bat ere behar izaten da.

Baduzu gogoan beste partidurik? Gol asko sartzeagatik, edo gol garrantzitsuren bat...

Iaz Arizen kontrako partidua irabaziz gero, igoera fasera sailkatzen ginen. Oso partidu berdindu jokatu genuen, eta hiru gol sartu nituen. Gol horiek partidu inportante bat irabazteko balio izan zuten.

Golak sarritan sartzeko ohitura hori beharizan ere bihurtu daiteke?

Aurrelaria goletik bizi dela esaten da, baina sarritan golik sartu barik ere, goleko pase bat ematen badut edo taldeak irabazi badu, ez noa golik sartu ez izanaren penatan etxera. Hiru gol sartuta negargarri jokatu dezaket, eta batere sartu barik nire partidurik onena egin.

Beraz, aurrelari bat ez da goletik bakarrik bizi.

Ez, nire kasuan ez behintzat.

Taldeari zerbait eman diodala eta lan ona egin dudala sentitzen badut, pozik noa etxera.

Zure gol kopurua ikusita, nork esango zuen gazteagotan atezaina izan zirela.

Zornotzan nesken taldea sortu zenean, atezain ibili nintzen hiru-lau urtez, 16 edo 17 urte egin arte. Lagunarteko partidu batean, atezaina lesionatu egin zen. Neu jarri nintzen atezain, eta gustatu egin zitzaidan.

Eta zelan ohartu zinen zure benetako tokia aurrelari zela?

Ligako azken partidua zen, eta Urritxan jokatzen genuen. Ez geneukan ezer jokoan, eta aurrelari jokatzeko gogoan nuen. Bigarren zatia aurrelari jokatzeko eskatu nion entrenatzaileari, eta onartu egin zuen. Gustatu egin zitzaidan, eta harrezkero postu horretan nabil.

Harrezkero aurrelari zabilta, baina iazko partidu batean...

Atezain jokatu nuen berriro. Gure atezainak ezin zuen jokatu, eta haren ordez neu jarri nintzen lehenengo zatian. Bigarrenean beste taldekide batek jardun zuen. Egia esanda, partidu lasaia izan zen, eta ez nuen lan askorik izan.

Zelako erlazioa duzue Julen Bedoya entrenatzaileagaz?

Oso ona. Berak transmititzen diguna gehienetan islatu egiten dugu zelaian. Entrenatzailearen eta jokalarien arteko lotura erakusten du horrek.

Eibar taldeagaz jokatzeko probak egin zenituen?

Ez ziren probak izan. Eibarko zuzendari teknikoak esan zidan ni eta nire talekide bi taldera batu gura gintuztela, nazional mailan jokatzeko. Eta aukera hori hausnartzen ibili nintzen, baina, azkenean, Ezkurdira joatea erabaki nuen.

Zergatik?

Goragoko maila hori probatzea erakargarri zitzaidan, ikusi gura nuen, baina nire lagunak hemen nituen, eta nik gura dudana da lagunekin jokatuz gozatzeko futbola. Horregatik erabaki nuen geratzea.

Zer harreman duzue zuzendariekin? Gustura zaudete?

Oso ona. Gugatik arduratzen dira, materiala falta bazaigu hor daude, presidentea partiduak ikustera etortzen da... Oso pozik gaude.



Iazko Txikigym erakustaldiko une bat. Uztai



Zaldibarko Olazarmendi Erritmika Taldeko gaztetxoak.

ADITUAREN TXOKOA**KOIKILI LERTXUNDI**

Futbolari ohia eta enpresaria

**Emaitza & jokoa?**

Kirolean oro har, eta futbolean bereziki, badago maiz nabarmena den kontraesan potolo bat, emaitzen eta emaitza horiek lortzeko erakusten den jokoa artean. Sarri entzuten dugu garrantzitsuena emaitza dela, ondorioz, azterketa gaitzeko modua bigarren mailan gelditzen delarik.

Zentzu honetan, agerikoa da talde profesionalak, aipatutako aferaren baitan, etengabe dantzan dabilzala, baita Athletic bera ere. Eta egun, Athletic zale askoren kezka taldeak emaitza eta modua uztartzeko dituen arazoetan oinarritzen da.

“Athletic zale askoren kezka taldeak emaitza eta modua uztartzeko dituen arazoetan oinarritzen da”

Ildo honetatik, oso esanguratsua iruditu zitzaidan aste honetan Beñat Zarrabeitia kirol kazetariak bere Twitter kontuan argitaratutako txioa: “Athletic hamabosgarren jardunaldiaren ostean: 16-17: 23 puntu; 15-16: 21 puntu; 14-15: 19 puntu; 13-14: 28 puntu; 12-13: 18 puntu; 11-12: 18 puntu.

Datu hauei Europa League eta hasi berri den Errege Kopako emaitzak gaineratu behar zaizkie.

Beraz, egun emaitza eta jokoa artean ezkontzarik ez dagoela agerikoa dela ikusten dugun arren, egia bada emaitza jokoa isla dela, jokoa nagusitzea lortzen badugu, non egon daiteke talde honen heldulekua?

Angelman Sindromea Elkartearentzat batuko dute dirua gimnasia erritmikoko erakustaldian

Durangon izango da ekimen hori; Zaldibarren gimnasia erritmikoko beste erakustaldi bat egongo da

> GIMNASIA ERRITMIKOA J.D. Durangoko Uztai taldeak urteroko Txikigym gimnasia erakustaldia egingo du zapatu honetan, 11:00etatik aurrera, Landako kiroldegian. Azken urteetan egin ohi duten moduan, erakustaldia ekintza solidario batez lotuko dute. Aurten Angelman Sindromea Elkarteari lagunduko diote.

Landako kiroldegian jarritako postu batean kafea eta bizkotxo zatia euro baten truke salgai jarriko dute. Ekintza horren

bidez jasotako dirua Angelman Sindromea Elkarteari emango diote. Bizkotxo denak Uztai taldeko kideek egindakoak dira.

Erakustaldiari dagokionez, benjamin aurreko (2009-11 urteen artean jaioak) 250 bat gimnasta batzea itxaroten dute, eta horietatik 35 bat Uztai taldekoak izango dira. Bizkaia osotik etorritako gaztetxoak batuko dituzte. Urtean zehar ikasitako jendaurrean erakusten duten lehenengo aldia izaten da askorentzat.

Zaldibarko erakustaldia Durangokoa ez da asteburuko gimnasia erakustaldi bakarra izango. Zaldibarko Olazarmendi Erritmika Taldeak beste bat antolatuko du domekan, 12:00etan, Olazar pilotalekuan. Guztira, 17 urtera arteko 60 bat gimnasta batuko dira. Zaldibarko gazteek ez ezik, Durango, Elorrio eta Getxokoek ere parte hartuko dute.

Olazarmendi iaz sortu zuten kluba da. Hainbat urtez eskolako gurasoen elkarteak antolatzen zuten eskolaz kanpoko ekin-

tzan du sorburua. “Ume askok ematen zuten izena, eta ez zen erraza kudeatzea”, gogoratu du Amaia Garcia Olazarmendiko presidentek. Orduan, umeen guraso batzuen artean gimnasia erritmiko kluba sortu zuten. Gaur egun, 6-17 urte arteko 24 gimnasta entrenatzen ditu Itsaso Zubia durangarrak. Apurka emaitzak lortzen dabilta. Eaterako, Lidia Romero gimnasta iaz bigarren geratu zen kimu mailako Bizkaiko eskolarteko txapelketan.

Eneko Carballok zilarrezko domina irabazi du judoan

> JUDO J.D.

Estatuko, Frantziako eta Portugalgo judokak batu zituen joan zen astean Iruñean jokaturako txapelketak. Urteko txapelketarik garrantzitsuenetakoa da eta maila handiko hitzordu horretan, Durango Judo Taldeko Eneko Carballok Bizkaiko ordezkari moduan parte hartu eta zilarrezko domina irabazi zuen bere pisuan eta kadete mailan.



Larrañaga eta Perez dira Olazarreko lehen finalistak

Labaka eta Martinez menderatu dituzte

> PILOTA J.D.

Olazar pilota txapelketan binakako finala jokatu du Mikel Larrañagak eta Miguel Perezek osatutako bikoteak. Biak arabarrak dira. Joan zen asteko eguenean lortu zuten finalerako txartela, Peru Labaka eta Iñigo Martinez 22-19 menderatuta. Partidu gogorra eta borrokatua

jokatu zuten bikote biek, eta azkenera arte bikote biek izan zituzten irabazteko aukerak. Atzo binakako bigarren finalerdia eta lau t'erdiko lehenengo jokatu zituzten. Datorren eguenean, 21:30ean, lau t'erdiko bigarren finalerdia jokatu dute Iker Salaberria nafarrak eta Adonis Gelis gipuzkoarrak.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Podología

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

www.bautistamuebles.com



**%25eko deskontua dendako altzari guztietan, urtarrilaren 5era arte:
bildumak aldatuko ditugunez, dendako erakusketa guztiak likidaziotan salduko ditugu**



**Zure erosketaren %100 finantzatzen dugu, eta martxora arte ez zara ordaintzen hasiko:
10 kuota sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe**



**Zure proiektua diseinatu eta aurrekontua prestatuko dizugu, batere konpromisorik gabe.
Doako finantzaketa**



 94 672 77 00

info@bautistamuebles.com

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)

Erakusketaren Eraberritzea

Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

%



A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > -%20 ideien proiektuan.



BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreraren deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburueta menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- > -% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- > -%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -% 5 Dippner oinetakoetan.
- > -% 10 Gabonetako produktueta: turroiak, polboroiak...



OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.



UR URDAIBAI

- > -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

> BOTIKAK**BARIKUA, 16**
09:00-09:00**De Diego**
Intxaurren 22. - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 17**
09:00-09:00**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-13:30

De Diego
Intxaurren 22. - Durango**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Larrañaga-Balentiaga**
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 18**
09:00-09:00**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 19**
09:00-09:00**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 20**
09:00-09:00**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 21**
09:00-09:00**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 22**
09:00-09:00**Etxebarria**
Montevideo etorb. 2 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org
eguztieneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

**> Gaur Telmok** 3 urte betetzen ditu, eta Martinek, abenduaren 21ean, 5 urte. Zorionak familiaren partez. Jarraitu beti bezain irrifartsu!**> Zorionak, Izeitxu,** familia guztiaren partez. Ondo pasa egune, muxu handi bat amatxoren eta aitaxoren partez.**> Zorionak, Aiala!** Ondo pasatu zure seigarren urtebetetze egunean. Jarraitu zaren ume alai, irribarretsu eta ederra izaten! Askok maite zaitugu! Zure ahizpa Ane eta familia guztiak.**> Lore,** zure 7. urtegunen itzel pasatzea espero dogu guztiok, zorionak, Txipirona! Maialen, Amets, aitatxo eta amatxo.**> Zorionak, aitatxo!** Ondo-ondo pasatu egun berezi honetan eta jarraitu orain bezain zorionsu izaten! Muxu haundi bat amatxo, Ane eta Aialaren partez.**> Zorionak zure urtebetzean, Mila!** Muxu handi handi bat, guapisima.**> Abenduaren 9an aittitte Juan Luisen urtebetetze eguna izan zen. Zorionak, aittitte!****> 9 urte egin dituzu eta zorionak denon partez. Ondo pasa!****> EGURALDIA**

ZAPATUA	14° / 6°	
DOMEKA	12° / 5°	
ASTELEHENA	9° / 6°	
MARTITZENA	8° / 5°	
EGUAZTENA	11° / 6°	
EGUENA	12° / 6°	

Lekuan lekuko egutegia**ABADIÑO** Petite / Nazgarri / Atxakateruena
ATXONDO Kuruko Atxondo
BERRIZ Ilanda
DURANGO Plateruena / Hitz Liburu Benda
ELORRIO Itzi**GARAI** Herriko Taberna
IURRETA Urki / Anboto
IZURTZA Herriko Taberna
MALLABIA Bastida Taberna
MAÑARIA Errekando**OTXANDIO** Danonua Taberna
ZALDIBAR Imenda
ZORNOTZA Ayerdi paper-benda

2€

anboto
KomunikabideakAnboto
Komunikabideak

@anboto



@anbotokomunikabideak

www.anboto.org

“Ondo joan denean inor ez da akordatzen; txarto joan bada teknikaria da erruduna”

Soinu teknikari izateko hastapen ikastaroa ematen ari da Plateruenean Namek Planet taldean aritutakoak

> AKUILUA Aitziber Basauri ‘MobyDick’ obraren biran lanean ari da Gorakadagaz Plateruenean soinu teknikaria dena, eta Zain taldeagaz diskoa grabatzen ere badabil. Udan, berriz, Iruñeko Belice eta Leihotikan taldeekin ibiltzea du aurreikusita. Zazpi urte dira San Agustinen teknikari hasi zela, eta gelditu gabe dabil.

Soinu-mahaia erabilteak denbora eta praktika behar du? Hasi aurretik, nola erabili jakin behar da. Oinarri bat beharrezkoa da. Hala ere, oinarritzko lauzpabost gauza jakinda, edonork egin dezake. Nik egiten badut... (barrez).

Soinu ona lortzeko sekreturik badago? Kontzertua, irratsaioa, antzerkia... esparru asko daude. Lehenengo eta behin, zer egin behar dugun jakin behar da, eta ezinbestekoa da kalitatezko lehengaia —artista, musikaria, esataria...— izatea. Mikrofonoari bolumena eman arren, abeslariak abesten ez badu...

Gerta daiteke lehengai ona izan eta soinu teknikariaren eraginez oso txarto entzutea? Bai horixe! Hala ere, —eta ez diot ardura inori leporatu gura— oinarritzko ezagutza edukita, eta lanean arduratsua izanda, soinua erraz ateratzen da aurrera. Lana ondo egin gura izatea ere oso garrantzitsua da, are gehiago horrek askorengan



eragiten badu: entzulearengan, artistarengan...

Arlo asko hartu arren kontzertuekin lotzen dugu soinua? Bai. Egia da horrek duela konplexutasun gehien. Mikrofono asko egon daitezke: bateria, baxuak, gitarra, trikitia... denei soinua jartzea zailagoa da, adibidez, irratian aritzea baino.

Badago musika tresnaren bat besteak baino zailagoa soinua jartzeko orduan? Trikitiari, laudari edo soka askodun gitarrerri soinua jartzea delikatu da; harpa bati, adibidez. Gitarra elektriko bat edo bateria bat baino gehiagoko landu behar dira. Abesbatza handi bati soinua jartzea ere ez da erraza. Eta antzeppen batean mikrofonoak desagerrarazi behar ditugu. Soinua anplifikatu behar da, baina, mikrofonoaren soinu hori izan gabe. Mikrofonoa dagoen ala ez dudan jartzera heltzea zaila da.

Belarri fina behar da? Musikaltasun pixka bat behar da; ondo entzuten den ala ez antzematea. Hala ere, entzumenaren trebatu, hezi egin behar da. Soinuak erakartzen ninduen arren, nik neuk ere ez nuen trebeziarik, abilidadarik hasi nintzenean. Oinarri bat izanda, ikasten zoaz. Musika tresna asko entzunez, ariketa asko egin da, entzumenaren trebatuz doa. Belarria trebatu egiten den instrumentua da.

Belarria trebatzen erakutsiko duzu ikastaroan? Soinu arloan oinarritzko nozio bat ematea da helburua: elkarte batean soinu ekipo bat izanik, hori nola erabili; edo bertso eskola batean soinua nola anplifikatu erakutsi. Uste baino gehiagotan gertatzen dira halakoak. Praktikak ere egingo dira.

Ezinbestekoa da zuen lana? Garrantzitsua da, baina ezinbestekoa ez. Artista da protagonista eta teknikariok euskarria eman behar diogu. Itzelezko kontzertua eskaini daiteke soinu-teknikari bat gabe. Baina, baldintzak ez dira berdinak areto batean edo kalean. Giroa ez da berdina, eta soinu teknikariak asko lagundu dezake. Bestalde, egia da dena ondo joan denean inor ez dela gure lanaz akordatzen. Aldiz, txarto joan bada, teknikaria da erruduna.

Esker txarreko lana... Baina oso atsegingarria, motibagarria. Egun on batek bost txar konpentsatzen ditu. Baina, gustatu egin behar zaizu, zure tokia zein den jakin behar duzu.

Oholtza gainean ibili zara zu. Namek Planet taldean (Elorrio) aritu nintzen. Oso ondo pasatu nuen. Disko bat ere atera genuen, neuk grabatuta. Horrek, beste aldean jartzeko gaitasuna ere eman dit. Baina, lehia-keta bat irabazi ostean, BBK Live jaialdian jo genueneko in-flexio-puntua izan nuen. Jotzen nengoen, baina soinuari adi. Askok gustatzen zait gitarra, eta musika, baina etxera heltzean isiltasuna gura dut.

LAUHORTZA

ARITZ MALDONADO
Kazetaria



Trena

Armairu gainean ezkatututa dagoela jakitun, aulkiz eginiko mendia nola eraiki ari da pentsatzen haurra. ‘Nola gainditu gurasoen tranpa zitala?’. Zauria itxi ostean, txokolatezko arrastoak garbitu dizkio aurpegitik erizainak. Aita ez da gai izan errietarik egiteko.

‘Zergatik?’ itauntzen dio bere buruari ogibidez tabernaria den lizentziatuak. Enegarren masterrean izena emateko gurasoei dirua eskatzea pentsatzen ari da, bere arazoan konponbidea hortik ez dela etorriko badakien arren. Pentsatzen eman du gau osoa.

Lagan, izarpean larrua jotzen ari den bikotea ez dabil ezertan pentsatzen. Arnases-tuen osteko solasaldian, berriz, hontaz eta hartaz aritu dira. Eta horrela, besarkatuta harrapatu ditu egunsentiak.

‘Gaurkoan ez da nire txanda izan’ pentsatu du medikuaren agindua desafiatuz anisari azken zurrutada eman dion amonak. Hileta ondoren, etxera hurbildu den alabari muxua eman dio.

Umeak heldu izatera jolasten diren bitartean, jolastea noiz ahaztu zuten gogoratzeko gai ez diren adindunak daude; duten diruarekin zer egin ez dakitena ere badaude, baita ere zer egin jakin bai, baina hori egiteko sosik ez dutenak. Duda bakoitza bidegurutze bat da, hau da, aukera bat, edo burukomin bat. Perfekzioa ez da existitzen, baina bai arrazoiak, motibazioa. Egin ala ez, zirt edo zart. Trena azkar doa, azkarregi, eta ez dakizu noiz izango den hurrengo geltokia.

Imajinatzeko gai den uniber-soan bizi da norbera.

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902